

# Maiatz:

maria mestoya or  
 elia arcochabeñ  
 at bid egorri itxa  
 robor da jon casen  
 ave piarres dñh yp  
 etre mikel dñh pak  
 mikel dñh vert papt  
 xoa etxe goin lu  
 cieñ etxe zahar  
 retama itegam  
 arra manexlan  
 at bua mari ean  
 pemina berri oi  
 han jose basan  
 iona india auxt  
 ip zamora .

# 7



# maiatz

## PRESENTS


LITERATURA GAUEKO EURIA BEZALA DA  
PARASOLIK GABE IBILTZEAN ZAITU GEHIENIK  
BUSTITZEN

G KAKOLI 1822

maiatz 7 delakoaren aurkibidea	1
M. Manddolin liburuak	2
R. Etxebarria Gudua	3
A. Zamora Elgarri musuka	3
P. Duny-Petre Karlixten gudu-kantuak	4
E. Etxamendi Frantxix	7
J.L. Davant Gurea	9
Kixote berria	10
Ikusten	10
M. Dupak Añarrosa	11
M. Lanathua Burus behiti	16
Fermin-i	16
I. Borda Beharrondokoa	17
Hire gorrotoaz	17
Come black	18
Kastua tÛpÛ	18
Lur Man	19
Trein in Vain	20
M. Pelot Plist Plast.	24
pub	30
D. Landart Gaua luze izanen da bihar bilakatzen	31
eskaintza	
aprendiz	
lantegiko hamar manamenduak	
laneko lagun bati	
lantegiko komunean	
nagusiaren nigarrak	
xileko langileriar	
apez	
emazte paregabea	
ez ezen arras besteak bezalakoa	
andere haundi	
L: Etxezaharreta	
Biziaren amarauna	40
Gauaren distiran	45
galbidea	46

bazen behin...

maiatz-1



## EGUBERRIKARI OPARI...

Eguberri egun saindua hurbiltzen ari zaigu landeroski. Landeroski diru gutxi baldinbadaukagu, landeroski ez badakigu oraino zer eskainiko dugun gure ingurumeneko adiskideei. Nik suertea badut, ezpaitut adiskide handirik... MAIATZ aldizkari ergel honek, anartean lagunduko zaituztete zuen liburu erosketen gidatzeko, koko !

## EUSKAL LIBURUAK :

Eufemisma bat lizateke erratea euskal liburu parrasta interesgarri bat kaleratu dela, euskal kalifikatiboarekin beti interesantea direlakoan (hum... hum). Nik kontseilu bat eman behar banu, nioke SUSA saileko bost edo sei liburuak eskuratzekoak direla lehen bait lehen : Xabier Montoiaren «Anfetaminak», «Zergatik ez ?... Sigrid ?», Josu Landaren «Ipurtargi beltza», Pablo Sastren «Hotel magikoa», Fernandez de Larrionaren «Gauerakoan» eta Mikel Antzaren ipuin liburu berria... Bai eta ere laster aterako den Itxaro Bordaren «Basilika», argitaletxe berdinean. Denak obra aberatsak dira, begientzat ederrak, etab.

Bestalde ELKAR-en jalgi Joseba Sarrionaindiaren «Narrazioak» irakur daitezke ; ez bakarrik Joseba kartzelan dugulakoan, baina ipuin horiek zinezko balio literario bat daukatelakoan. Euskaraz idazten diren textorik ederrenak. Sail berean aipa dezagun Jon Miranderen ixtorioen ekisgarren argitarapena «Gauaz parke batean» titulupean. Eta bukatzeko zergatik ez eskaini, ideia eskasean, Pierre Charriton ospetsuaren obra : «Etxepare medikuaren idazlan hautuak». Ez gara atseginez zartatzen horiek irakutzean, baina ordea senditzen dugu gure kulturkeria aberasten dela.

Ensuite : Arantxa Urretabizkaia emazte idazletan ezagutuena dugu naski. EREIN etxeak berriz argitara eman du ipuin hunkigarri bilduma bat «aspaldian espero zaitudalakoan ez nago sekulan bakarrik» izen luzearekin. Hemen jarriko dut hau : Itxaro BORDA-k TXERTOIA argitaldarian XX-garren mendeko emazte izkiriataleetaz saio bat aterako du laster, ez bada jadanik egina. Bueno, TXERTOIA aipatzean erran dezagun BELTZAREN «Zazpigarren alaba» kaleratu duela. Zazpigarren alaba Araba da, eta Beltzak Bitoriako bere haur eta gaztaroko karriketan zehar eramaten gaitu. Ibilaldi on bat egiten da, Arabara joateko gutizi ezin gaintuzko bat sortzen duela...

Ez ditzagun bada ahantz Bertsularien Elkar-teak publikatu bi liburuak : bat «Zahar hitz, zuhur hitz» izeneko euskal erranzahar konpilazioa (Jainkoak beharrik ez daki ez direla bildu berriak !) ; bi, Mendiburu bertsolari erdi apazaren «Bertsutan ariz ikasten» delakoa. Mendibururen esopetako argazkia liburu hortako gauzarik politena zela iduritu zaigu. Agian, bertsua (zahar eta apaz ixtorio) presentatua den manerak ez ditu gazteak bertsolaritzatik sobera baztertuko, edo desgustatuko.

Behar bada hoberena ondarreko utzi dugu. MAIATZ batasunak liburuak argitaratzeko sail berri bat ireki du : UHARGI saila, eta bederen biga ateratu ditu agorrilean : bat, Marc Legassen «Concerto guerrilero pour un pays qui n'existe pas» poetiko eta sinboloz betea ; bi, Itxaro Bordaren «Bizitza nola badoan» poema bilduma. Askok diote liburu hau iluna, trixtea, nihilista eta hutsa dela. Nik poema horiek irakurtu ditut, eta bizitza bere krudeltasunean borrobilkatzen ikusi dut, euskara ximple eta zuzen batean emana. Aurtengo liburu hunkigarriena nere ustez. . . Ordea, Maiatzen itzal beltzaz baliatuz Manex LANATUA garaztarak «Hegatz urratuan» poemak agertu ditu. Obra lotzen duen korda ez da kotoinezkoa, baizik eta hari sintetikoakoa. Erran behar zen !

## ERDARAZKO LIBURUAK :

Euskaraz irakurtzeak nekatzen bazaituzte, posible da, erderaz ere agertzen dira liburuak. Bai frantsesez, bai kastelanoz. Leitzen ahal da, has-teko, Milan KUNDERA Txekoslobiarraren «L'in-soutenable légèreté de l'être» obra. Maitasun historio harrigarri bat erraten digu, aspalditik idazten duen Kundera honek. Ez dakit, bakoitzak bizi dezakeen mendeari lotu maitasun ipuina. Gero, Agustín Gomez-Arcosen «Maria Republika» Espainia frankistako puta-gorri batetaz idatzi liburu har daiteke. Putaetxeak hertsu zituztenean, langile horiek familiek, edo eskontarazten zituzten aberasteri, edo komentueta sar arazten. Berdin baita ondarrean. . . Erosten ahal duzue ere Goncourt taldeak saristatu duen Margita DURASen «L'amant» lan ikaragarria. Indoxinan gertatzen da, Txines batekilako maitasun ezinezko ixtorio bat bada, eta ororen gainetik idazlearen orroitzapenak dira lerro krudeletan biluzirik ezarriak. . . Borgesen nobela labor bilduma bat ateratu da Folio liburutegietan «Le rapport de Brodie» titulupean. Buenos-Airesko izkribante itsua egiazko maixu agertzen zaigu obra hortan. . . Polizia nobelak gustatzen bazaizkitzue har zkitzue Scerbanenco Italiar idazlearen lanak : adibidez «Milanese larrubatetan hiltzen dute», «Odola elizatarrian» eta «Masakrearen semeak». Ezagutzen da, Scerbanenco horrek Milaneko krimaren mundua aztertu duela, bere Duca Lambert personaia famatuaren bidez. . . Italiaren beste puntan Leonardo Sciascia delakoak mafiaren erraiak mugitzen ditu bizpahiru liburu ederren idazteko : «Bakoitzari berea» eta «Candido» adibidez. Italian beti Dino Buzzatiren «Memento honetan preseski» orroitzapen desabusatu bilduma bat eskaini digu. Dino Buzzatiren «Tartaroen mortua» irakurtua dukeuzue aspalditik. . .

Goazen Italiatik Japoniara : hor ere liburu pila bat aurkez genezake, baina bi idazle bakarrik ditugu hautatuko : bat 1968eko Nobel saria eduki zuen KAWABATA hiru obrekin : «Izuko dantzaria» , «Elur herria» eta «Loak hartu politak». Hiru lan hunkigarri, Japonia zintzo baten itxurarekin. Beste MISHIMA izango dugu frantsesez eta espainolez agertua den «Maskora baten aitormenak» izeneko obra. Homosexual baten ixtorio tradikoa. . . Ez ahantz ere FUKAZAWAren «Narayama» . . .

### OBRA MUNDIALAK

Hemen bi liburu eternal presentatuko ditugu. Lehena euskaraz ere irakur daitekeen Biblia. Obra hau idazle askoren artean eгина da, eta parte batean Jainkoaren semearen zain dauden jende batzuren historia kondatzen da, bigarren zatian Jainkoaren seme horri lurtean gertatzen zaizkion zoritxarrak erakusten direla. Pentsamazue, gizagaixo hori kurutzefikatu zutela Erromanoek. Ederki eta xinpleki idatzia da, roman bat bezala irets daiteke. Bigarrena Dante ALLIGHIERI Italiar erdi aroko poetaren «Komedia» dugu. 1310garren urtearen inguruan, Dantek infernuan, purgatorioan eta paradisuari zehar ibilaldi inizatiko bat egiten du hain maite duen Beatriz Folco neskaren bila. Bonifazio VIII aita saindua infernuaren azken zoletan ikusten delarik, bada zenbait gogoetaren egiteko estakurua. Toskaniako bertsuetan sortua da Danteren obra ...

Bon. Bueno. Ontsa.

Bada beraz, munduko eta euskal herriko luburuetan eguberritan opari emateko gai frango. Buxet guzientzat formatu dugu hau, eta ere ahal genuenean gustu gehien asetzeko. Agian ez zarete sobera galduko, zeren eta heldu den urtean, aurten bezala, zuen beharra ukanen baitugu. Aren eguberri eta urtats on... Irakurtzea ez da aski, bizi behar da denbora berean. Bota txanpaina, antzera gibelak eta kabiarra ! Agur ...

MARI MANDDOLIN

**blablaaaaaaa**

**klo2hil41 eta**

**...u u uts**

### GUDUA

EUSKAL HERRI  
GURE HERRIA  
ETXE, MUNDU, HERRI  
GURE ABERRIA

ZUZEN, GOGOR  
BETIKO, BETI  
BETIKUA

ABIL AZKAR  
BIHAR DUGU  
GUDUA

EGUN EKHIA  
BEROA

GAUAZ LASAI  
PENTSATUKO  
GOIZEKO ARGIA

R. ETXEBERRIA.

### ELGARRI MUSUKAN

Oraintxet berean, zirimoletan,  
sortu gira besta huntan,  
iduzki deno dantzan,  
ilargi deno irrinigaretan,  
bakarrik, iluna urbiltzean,  
lokartuko gira elgarri musukan.


Biziaren mainatak eta lakaioak gira,  
subandaden ufatzaleak,  
ingumeri gatz eta biperraren zerbitzaleak,  
izarihintzeri «maite zaitut» xuxurlatzaleak,

suge mahatsen denbora,  
zoin den laburra,  
gure ametsen barneko inkaminak,  
zoin diren hegalez beteak,

zurunbidetan, Mahuma xuriak,  
erortzeko minarekin,  
trebukatu dira,  
eta, xekale landetan,  
birbiratu, galetsien irudiak,

oraintxet berean, zirimoletan,  
sortu gira, besta huntan,  
iduzki deno dantzan,  
ilargi deno irrinigaretan,  
bakarrik, iluna urbiltzean,  
lokartuko gira, elgarri musukan...

AUXTIN.



## KARLIXTEN GUDU-KANTUAK

Lehen hala,  
Orai hola,  
Gero nola ?

Duela mende bat eta erdi, Karlixten jazar-aldi denboran, sasi-gudariak bazituzten beren kantuak, Frantses «Mauquisards» delakoek bezala. Ez uste, orduan ere, kantu bat bakarrik bazela. Egia erraiteko, 1942-an, hiru segurik entzuten nintuen, eta «Le Chant des Partisans» famatu hura, berantegi agertu zen egiazko borrokarien artean. Nik ez nuen ikasi 1944-eko udan baizik, sasi-gerla bururatzen ari zelarik ! . . . Ez uste ere gudari horiek tirahala kantuz ari zirela mendien gainetik, denbora goxoki pasatzeko. Beti gordetuz eta barrandan, etzuten beraz azantzik egin behar. Bainan zombait aldiz, etsaia urrun zelarik eta tresnak oro bizkarran ereman beharrez mendiz-mendi, mutiko horiek botatzen zituzten bertsu batzu, ahapetik bederen, kantuak laguntzen baititu gizonaren urratsak.

### XAPELA GORRIA

Garaziko haur bat nintzalarik, Karlixten kantu eta erranzahar zombait ikasi nintuen ene aitaxi edo amatxiren ahotik. Bixtan da beraz gogoz banakiela «XAPELA GORRIA» ospetsua. Bainan luzaz egona nintzan hitz batzu ezin ulertuz, ezpaiziren herriko euskaraz erranak, eta ezpainuen oraino ikasi liburu zaharretan, zer izan ziren Karlixten gudu izigarriak hemengo mugaren ondo-ondoan. Huna, ene ustez, nola Nafartarrek emaiten zuten kantu hori lehenbiziko gerlan, 1830-etik 1839-rat, Don Karlos V-garrenaren ohoretan :

*Azpeitiko neskatxek, gona gorriekin (bietan)  
Ez dute dantzatu nai «Xapel Xuriekin».  
Ai, Ei, Ai, muttilla, xapela gorria ! (bietan)*

*Biba xapel gorria, borlia ferdea,  
Zaldi batian dator Don Karlos maitea.  
Ai, Ei, Ai, muttilla, xapela gorria !*

*Biba Don Karlos eta Doña Margarita,  
Gure Lege Zaharrak ta Jainko handia !  
Ai, Ei, Ai, muttilla, xapela gorria !*

*Gobernuak baditu bi pezetereoak  
Ba, bainan Don Karlosek boluntarioak.  
Ai, Ei, Ai, muttilla, xapela gorria !*

*Nik ere gogotikan hartu nuen arma,  
Nigarretan utzirik aita eta ama.  
Ai, Ei, Ai, muttilla, xapela gorria !*

*Gu lapurrak girela, kalean diote.  
Gezurra diote ta pagaturen dute !  
Ai, Ei, Ai, muttilla, xapela gorria !*

*Ez girare armetan ohointzaren dako,  
Bainan bai bakarrikan Don Karlosen dako.  
Ai, Ei, Ai, muttilla, xapela gorria !*

*Don Karlosek eman du Frantziatik ordena,  
Xanponian saltzeko beltzetan onena.  
Ai, Ei, Ai, muttilla, xapela gorria !*

*Xanponian ez izan, arditian ere,  
Lizarrako kanpotan dotzenaka daude.  
Ai, Ei, Ai, muttilla, xapela gorria !*

Bertsu zahar horietan, oraiko ikertzalek badukete zer ikas eta zer pentsa. Lehenik, nuntik debru ateratzen den «XAPEL XURI» eta «XAPEL GORRI» ixtorio hori. Horra zer erraiten ahal dutan.

1 - «XAPEL-XURIAK». Hola deitzen zituzten erregetiar boluntario guziak, Españatik, Frantziatik, edo nun-nahitik etorriak, Don Karlosen armaden gerla egiteko. Horiak etziren beraz Euskaldunak, eta boneta xuria zuten buruan, aspaldi danik erregetiarrek hautatua baitzuten kolore xuria. Frantzian bederen. Bainan, Gipuzkoako Karlixtekeren ezartzen zuten buruan boneta xuria, batailun zombaitetan, erregetiar arrotzek bezala.

2 - «XAPEL-GORRIAK». Horiek aldiz, Euskal-Herriko gudari guziak, eta bereziki Don Karlosen «GIDARI KONPANIETAN» ziren soldado hobereak. Huna zer xuxentasanak emaiten dauzkigun Karlixten aintzindari batek :

... «Les seules Compagnies de Guides avaient alors un costume militaire au grand complet, et ce costume consistait en une petite veste de drap, couleur gris de fer...

... «La coiffure n'était autre que la boïna, béret basque rouge orné d'un gland jaune. Le pantalon était blanc et l'alpargate en corde formait encore la chaussure indispensable...»

«TIO TOMAS», Souvenirs d'un soldat de Charles V, par Alexis SABATIER, Lt Colonel d'Infanterie au service de l'Espagne, Bordeaux 1836 (Chap. V)

Orai, argitasun horieri esker, asmatzen ahal da naski, zergatik Azpeitiko nexkatxek nahiago zuten jantzan arizan «Xapel-gorriekin», GIDARI famatu horiek gizon ederrenak zirelaketz, eta bereziki Euskaldunak !

Ba bainan, kantu hunen hastapenean, argitu behar litake zertako olerkariak aipatzen daukun «BORLIA FERDE» hori. Iduritzen zaut huts bat egin duela, ikusi baitugu, orai berean, xapel guzian gainetik borliak edo punpunak kolore horia zutela ! Eta gehiago dena, «TIO TOMAS» liburu hortan, Sabatier Kolonelak erraiten daukun Madrilekoek kolore ferdea hautatzen zutela Don Karlosen gudarietarik berrexteko (XII-garren kapituluan).

3 - «XAPEL-URDINAK» ere baziren Karlixten batailun zombaitetan. Eta beste liburu batian ikusten ahal dugu zer zuten soinean, bereziki aintzindari batzuek.

... «Il portait la boïna bleue à houppes d'or, la tunique sombre des Brigadiers Généraux, sans décorations sans autre insigne que, brodé sur la poitrine à gauche, le scapulaire au coeur enflammé entouré de la devise : ARRETE, LE COEUR DE JESUS EST AVEC MOI...»

«POUR DON CARLOS», par Pierre BENOIT à Paris, 1929 (2e partie, Chap. 1)

4 - Bizkitartean, ez dugu sekulan ahantzi behar Karlixten armadako Euskaldun gehienak «sasi-gudariak» zirela. Eta gizagaizok, buruan ukanik ere xapela gorri bat, etzuten denek jauntzi berdinak soinean. Beraz, ibiltzen ziren, atxemaiten ahal zituzten beztimenduekin, egiazko «MAQUISARDS» delakoek bezala. Hori ere agertzen da «POUR DON CARLOS» aipatu dugun liburuan, itxura ohargarri bezain eder horietan :

... «Une cinquantaine d'hommes s'approche. De l'Infanterie Carliste. Longues capotes bleues, récoltées sans doute sur les cadavres des Libéraux, boïnas rouges à plaque de cuivre, alpargates. Les montagnards ont un pas long et balancé, étonnamment rapide. Un guitariste rythme leur marche dansante...

... «La petite troupe défile. Olivier voit près de lui ces montagnards en guenilles, aux armes bien fourbies...»

(2e partie - Chapitre IV)

## KARLIXTAK ETA MADRILEKO LIBERALAK

Orai, argitasun horieri esker, erraiten ahal dugu Karlixten artean bazirela bi gerlari mota :

- HERRI GUZIETAKO ERREGETIARRAK, Don Karlosen laguntzeko gogotik jinak, pentsatuz hua ta bera behar zela Españako errege.

- EUSKALDUNAK ETA KATALANAK. Horiek aldiz Karlixten armadarat etorri ziren, Don Karlosek erabaki baitzuen «FUEROAK» edo «LEGE ZAHARRAK» begiratuko zituela, lehengo libertateak eta ohidurak onhartuz.

Ageri da, beraz, iritzi desberdinak ukanik ere, jende horiek oro Madrileko Liberalak gudukatzen zituztela. Denbora hortan, ez ginuen egun bezalako nahaskeriarik, «eskuin» edo «ezkerreko» politikarekin. Eta bi alderdi baikirik etziren azkenian :

- «ZENTRALIZMOAREN» ALDE ZIRENAK, Madrileko podere guziak bereganaturik, eta baimenak oro berak emanik.

- ASKATASUNEAN PROBINTZIAK ATXIKI NAHI ZITUZTENAK, Madrileko nausi agertzen balinbazen ere denon onetan, eztabaden trenkatzeko bederen.

Holako auzi bat ezpaita naski atzo sortua ! ...

Bainan beste alde batetik, bertsu zahar horiek ikustarazten dauzkigute nola sumindu zen gudua. Jakiten dugu lehenik zer zen Madrileko soldadoen saria : bi Pezeta irabazten zituzten egunean. Eta hetaz trufatzeko, Euskaldunek erraiten zaioten «BI PEZETAKO GIZONAK» zirela! Karlixtak aldiz, kopeta gora zabiltzan «BOLUNTARIOAK» izanik. Liberalek, ordu berean, zikintzen zituzten sasi-gudariak, erranez lapurrak edo ohoinak zirela... Alta, badakigu arras ontsa nola jujatuak diren, orai ere, «Eusko Gudariak». Bai eta Frantzian, 1942-eko «Maquisards» horien artean nintzalarik, «terrorista» bilakatu nintzan omen ! Hortan dugu naski betiereko leloa.

Bota eta errefera ! Karlixtak berriz lotzen ziren gatas-kari, eta izengoiti tzar bat Madrileko Liberaleri emaiten. Horiak oro ziren «BELTZAK» edo «Los Negros». Eta laido hau ezpaizakoten aski, Karlixtek zioten «beltz» horietarik hobereak etzuela «Xanpon» bat balio ez eta ere «Ardit» bat ! Jakin behar da Xanpona eta Ardita, sos ttipienak zirela gerla horren denboran.

Ororen buruan, nola sortu zen ezin ahantzizko herra bat Euskaldunen eta Españolen artean ? Aise asmatzen ahal litake, irakurtuz lerro batzu aipatu ditugun liburuetan.

1. Huna zer zion Alexis SABATIER Kolonelak, ikusi orduko zer gaixakeriak egiten zituen Liberalen aldeko RODIL Generalak : ... «Impuissant contre le génie de ZUMALAKARREGUI, Rodil se vengeait de ses pertes et de ses humiliations par le pillage et l'incendie des couvents, des fermes des volontaires, des maisons où était entré le Roi, des églises, et par l'assassinat des parents des soldats de Charles V, etc. Il sera impérisable, dans les Provinces Vascongades, le souvenir hideux du féroce, du sacrilège et de l'incendiaire Rodil. Tous les lieux qu'il a parcourus conserveront à jamais les traces sanglantes de sa présence...»

(«TIO TOMAS», Chap. VI)

2. Huna, bigarren gerlaren ondotik, zer orhoitzapen izigarriak bildu zituen Pierre BENOIT-ek Don Karlosen gudari zaharren ahotik : ... «Entre Pampelune et Jaca, c'était plein de prisonniers Carlistes. Ils n'avaient pu atteindre la frontière, les malheureux. Ils s'étaient rendus et, immédiatement, les Libéraux les avaient décimés. Il y avait là près de cent cinquante cadavres, nus comme des vers, rangés le long de la route. Notre voiture les a passés en revue. J'ai eu toutes les peines du monde à empêcher que mes roues de gauche ne leur écrasassent les jambes. Je ne suis pas sûr d'y avoir toujours réussi, obligé que j'étais de répondre par des drôleries aux plaisanteries que me lançaient ces ordures de soldats Libéraux qui étaient derrière leurs faisceaux formés à droite de la route...»

(«POUR DON CARLOS», 3e partie - Chap. V)

Gerla horietan ere, nun ote ziren egiazko «terroristak» ? Eta geroztik, zer ziren bada Franko-ren Afrikanoak, heldu zirelarik hego Euskal herrietan ? Zer ziren bada Hitler-en Mongoloak edo «S.S.» hiltzaleak, sartzen zirelarik Oradour bezalako hiri zombaitetan ? Beraz, ez da harrizko, mende bat iraganik eta, ene haur lagunekin oihukatzen baiginuen Garaziko bazter guzietan Nafarroko erran-zahar bitxi hori :

*Espanôla kokotero,  
Mando tzar bat hil dutero !.  
Catuhurik ezpaitute,  
Xerrien askan jan dute !.*

Bai eta ere, jende batzu espanôlez mintzatzen zirelarik karrika hegi batean, Donibandarrek erraiten zuten, irri tzar batekin hortzetan : . . . « To, beharri-motxak hemen ditiagu ! . . . »

## BIGARREN GERLA

Bi aldiz, Karlixtak jazartu ziren Madrileko gobernuaren kontra. Lehenbiziko gerla irabazten ari ziren, noiz eta ere Don Tomàs ZUMALAKARREGUI aintzindari ospetsua hil baitzen 1835-eko ekainaren 24-an, Bilbo hiri nausia atakutzen zuelarik. Hola itzali zen España guziko general hoberenatarik bat. Eta zorigaitz horren ondotik, Karlixtak gero ta nekeago arizan ziren guduan, «TIO TOMAS» bezalako buruzagi bat ezin atxermanez. Azkenian, Don Karlos V-garena, ihesari loturik, Frantziarat pasatu zen 1839-ko buruilarren 14-an.

Berriz, 1872-etik 1879-rat, Euskaldunak joan ziren gerlarat Don Karlos VII-garrenarekin. Aldi hortan ere, agertu zen sasi-gudari aipagarri bat : Hernialdeko Jaun Apezgaztea, Don Manuel SANTA-KRUZ deitzen zena. Hunek, arras ontsa ezagutzen zituen mendietako bidexkak, leizeak, eta zoko-moko guziak, axeria bezain abila izanez. Biziki maitatua zen herri guzietan, eta ezin ahanztziko balentriak egiten zituen bere mutiko taldearekin, Madrileko soldadoak beldurrez ikaran egon araziz. Gaetan Bernoville idazleak, gure Euskal gudarien ohoretan, emaiten dauzkigu itsura eder zonbait, egiazko olerki batean bezala, dena erromantismo eta gaztetasun agertzen direnak. Erdaraz ixkiratuak izanikan ere, zer bizitasuna, eta zer euskal hatsa, lerro pollit hortan :

. . . «Santa-Cruz marcha sur Alegria avec un parti de deux cents hommes. Il les disposa en file, un par un, et chaque homme à bonne distance de celui qui le précédait. En tête marchait Santa-Cruz, à pied, encadré de deux «chicos» à cheval. Derrière, venait le silbo Xabalo, puis le tambour Toloxa. Tous deux jouaient un air pimpant et frais, entraînant et gourdilleur, qui s'accordait au bruit léger du torrent sous les feuilles. . . Un beau soleil faisait partout chanter les couleurs. La route, aux prises avec le soleil et l'ombre, était blanche et bleue, et quand les gens de Santa-Cruz passaient dans les rais de lumière, entre les arbres, les canons des fusils luisaient soudain . . . »

«LA CROIX DE SANG», par Gaétan BERNOVILLE,  
PARIS, 1928. (Chap. X)

Denbora hortan, ene aitasoren arabera, beste kantu bat emaiten zuten sasi-gudariak. «XAPELA GORRIA» bezalako zen, baina hitzak etziren arras berdinak, eta eratziki zituzten bertsu berri horiek :

*Arnegin egin dute lastozko zubia, (Bietan)  
Hantik pasarazteko Don Karlos handia. . .  
Ai, ei, ai, muttilla, xapela gorria ! (Bietan)*

\*

*Don Karlosek omen du ezpatu zorrotza,  
Liberal ustel horier mozteko bihotza. . .  
Ai, ei, ai, muttilla, xapela gorria !*

Hemen ere, gure ikertzailek badukete buru hauste bat, «LASTOZKO ZUBI» horrekilan. . . Zer erran nahi zuten Karlixtak ele horiek erabiltzen zituztenean ? Nik segurik ez nuen sekulan asmatu. Orai, uste dut Don Karlos sartu zelarik Nafarroan, herritarrek edertu zutela mugaren zubia, lastoz, belarrez, ostoz eta liliz, besta batzuetan egiten den bezala, prosasionearen eguna delarik.

Zorigaitzez, lehen bezala, okaztagarriko nahasakeriak eta bekaizkeriak sortu ziren Don Karlosen gortean. Ixilki bezain maltzurki, Santa-Kruz bezalako aintzindari bikainak baztertuak izan ziren armadatik !. . . Azkenean, zernahi zozokeriak eginek bere Jaunttoekin, Don Karlosek galdu zuen bigarren gerla hori. Doi-Doia eskapatu zen, mendiz-mendi, mugaren bestalderat, Euskal-Herria utzirik odol eta sutan. Gaizo Gudariak ! Halere ari ziren borrokan, gosez hamikatuak, eta zaurituak izanik ere. Kinka tzar hortan arrunt etsituak, baina debruak hartuak, kantatzen zituzten omen bertsu horiek Don Karlosen zikintzeko :

*Don Karlosen gortean badute apeza, (Bietan)  
Gaztain errez ase ta emaiten du meza. . .  
Ai, ei, ai, muttilla, xapela gorria ! (Bietan)*

\*

*Arnegin eman dute gaxur ta zahia,  
Gizen dadin auserki Don Karlos urdia. . .  
Ai, ei, ai, muttilla, xapela gorria !*

Bigarren gerla hunen oihartzunak etziren oraino ixildu noiz Pierre BENOIT-ek «POUR DON CARLOS» liburua idatzi beharrez, atxeman baizituen zernahi xehetasun Euskal gudari ohien artean. Hala nola erakusten dauzkigu ezinago hunkigarriak diren azken itxura horiek :

. . . «Une mélodie grandissait. Les Carlistes scandaient leur marche en chantant. Bientôt, les paroles devinrent distinctes. . . »

*Ellio a vendu Bilbao,  
Et Mendiri le Carrascal,  
Calderon le Monte-Jurra,  
Et Perula ce qui restait !.*

«Olivier vit tout près de lui les capotes en loques, les visages hâves, les pieds nus. Une aigre guitare rythmait la chanson.

. . . «Ce n'est pas vrai, leur cria-t-il, se penchant hors de la voiture qui l'entraînait. Ce n'est pas vrai. Calderon n'a pas trahi !

. . . «Les montagnards, surpris, regardèrent le jeune homme. Puis ils ricanèrent et lui lancèrent une bordée d'injures. . . »

. . . «Un village s'offrit à eux : Laruns. . . Sous les arcades, gardés par une brigade de gendarmes français, une centaine de soldats Carlistes étaient rassemblés. Les uns étaient debout, les autres couchés dans de longues couvertures bariolées. La plupart étaient blessés. Ils regardaient d'un air sombre leurs pauvres armes, jetées en tas au milieu de la place, aux pieds des gendarmes. . . »

(«POUR DON CARLOS», 2e Partie, Chap. V)

## AZKEN SOLASA

Euskal-Herrian, noiz eginen ditugu liburu edo filma eder zonbait gure gudarien orhoitzapenetan ? Holako lan bati lotzeko, baginuke segurki gaia ! Nik uste dut, España eta Frantziako Jauntto batzuek, ontsa merexi luketela ostiko bat ipurdian gure idazlen partez, mundu guziak ikus dezan zer izigarrikeriak jasan dituzten gaizo Euskaldunek mende batetik besterat. Azkenean bederen, arrotz itsu eta elkor horiek jakinen dutea nuntik heldu den basakeria, eta noren faltaz hasten den ?

Egungo Euskaldunek segurik, eta bereziki gaztek, arras ontsa badakite, duela bi mila urte bezala, nun den betiereko etsaia. Orai ere, «XAPELA GORRIA»-ren ondotik, ez dea sortu «EUSKO GUDARIAK GERA» kantu famatua ? Orai ere, zapaldi lehertzale baten ondotik, gazteria ez dea errabiatzen ari herrialde guzietan ?

Piarres DUNYPETRE.



# FRANTXIX!

frantxix...

FRANTXIX

frantxix...

FRAN<sub>FRANTX</sub>IX<sub>ooo</sub>

Eñaut ETXAMENDI

Francis Oleigts zuen bere egiazko izena, Biarnesa baitzen. Baina Amikuze Euskal Herriko gure ikastetxean habaroxak euskaldunak ginen eta, behin deitu nuen artagabea «Frantxix ! Frantxix !...» eta denek «Frantxix» deitzen zuten geroztik. Peyrehoradkoa zen. Mutiko luze lerdan azkar bat. Laborari semea eta laborari gaia. Arpegi zabal lahargia, begi haundi urdin batzu beti Landesetako zerupe heren haundien amentsez igeri, eta bizkitartean beti zeure begietarat behatzaile. Irri gozo batean murgilduz elhea. Eztia eta azkarra zen. Gure ikasgelan gibel-gibeleko eskuiñeko xokoan zukan bere jartokia, azkena han. Buruaz besteak gainditzen zituen, eta noiz-nahi mintzatzen zen zerbaiten galdegiteko, xehetasun baten hobeki esplikatuzteko eta hola. Lagunek maite zuten, sekulan ez baitzen gaixtoa, eta nehoiz ez baitzuen durduzarik deusetan erakusten. Frantxix mutiko on bat zen.

Gertatzen zitzauden batzutan ikasleen larderiartzea. Maizenik oihu puska bat egin eta kitto. Baina behin edo beste, Frantxixen denboran, gertatu zaut kexatzea... Oihua bainoko zerbaiten erraitea norbaiti. Orduan nekak gorritzen ziren, mutikoek eskuak zaintsu zituzten eta hatsaren azantza eskolan nabari zen...

Jarraikitzen nuen norapait erakaskuntza !

«Beraz, Kapitalismoaren lehen garaia izan zen Kapitalismo Konpradorea, negozianteen kapitalismoa. Bankoetan diru-metatzearen lehen poloa izanen da Italia goihenean Gênes, Venise eta Florence. Geroxago Barzelona ere. Baina laster Flandriako lehorretan hasiko da bigarren polo kapitalistiko bat. Italiatik bigarren polo hortarat mogimendua abiatuko ere baita bai itsasoz, baina bereziki mendiz, Brenner-eko lepoetarik...etab»

Denak ixilik eta idazten. Ikasgela andan zen. Holakoetan Frantxixek xuxen zerbait galdeginen zuen.

«Zu, jauna, ta nolaz bada negozio eta diru-mogimendua erabil zitazkeen Italiatik Barzelonerat edo Flandriarat nihun aduana lanfarik gabe ?»

- Aha, bai, arrazoiña. Karlos Kintoren inperio barnean zauden horiek oro eta gehixago ere, Pragatik Akapulkoraino, eta San Frantsiskotik Patagoniaraino. Oraiko Txekoslovaki deitzen denean harrapatzen zen zilharretik, thaler izeneko dirupezak eginik, bazerabiltzaten Kanadaraino. Hortarik ba dolar-a...»

Eta holaxet ikasgela berriz jabaltzen zen.

Behin, larrazkena zen eta, urtzoak pasan. Ikasleak oro leihotik begiran. Hego-zerua zen eta bekatua baino gehiago izanen zen larderiaka hastea. Arpegiak dirdiran mutil-neskak garimaka urtzoeri so. Lekuratu ginenean galdegin neien :

« Zuetarik ba ote da norbait ihiztaria ?  
- bai, bai, ni.» Erran zuen Frantxixek.

Beste batzuk ere hala zirela erran zuten, eta galdegin neien zer ihiziren ondotik ibiltzen ziren.

« Ni basa-ahateka ibiltzen niz, erran zuen Frantxixek.

- Neguan naski hori, al'ez ?

- Bai bai neguan

- Ura baduzu etxeari hurren edo ?

- Bai ! Aturria, Aturri bazterrean da gure etxea.

- Eta nola artzen zira ?

- Baditut ahate lepoerde eskolatuak...kaloian atxikitzen ditut. Ihiziko lekurat lantxan juaiten gira lagunekin. Ugarte ttipi bat da Aturriaren barnean. Neure aha teak kantuz hasten dira zeruan basa-ahateak iragaitean, eta neureak aditzearekila, basak jeusten dira zirurika Aturrirat. Orduan dugu tiratzen.»

Eta ikasle guziak xoraturik zauden eta ni ere bai.

Isabelle Peyré, nexka bilo horibel eder bat zen. Akize aldeko nekazari famili bateko alaba. Metra eta lauetan-hogoi hurbil luze zen, kasik Frantxix bezain haundia. Ezpain meheak, eta larru fina zuen izotza bezain. Begiek arpegia betetzen zakoten. Ikusia nuen Frantxixen begien kurutzatzen behin edo beste... «Zer pareta egin behar duten !» nion neure baitan.

Behin eskolan solasa ginduen aktinidia frutatzeaz. Aktinidia edo Kiwi delakoak Peyrehoradeko eskualdean badira. Eta berehala Isabelle-k erran zuen :

«Frantxixek baditu.

- Ah bai ?

- Bai bai. Bada, gazte samarrak ditugu oraino. Jaz landatuak.

- Ikusterat jiten ahalko nintekieia ?

- Ba arazi ! Untsa plazaz izanen dute etxean.»

Eta holetan egun batez beraren etxerat jua nintzen. Aktinidiak erakutsi zauzta, esplikazioneak oro eman. Biziki kontent zen bere frutatzeaz.

«Badakizu, aitamak oraino gazte ditut, 50 urte ere ez dute, beste lau haurride baditut eta nik aktinidiekin hasi gogo dut nekazaritzan. Leku gutti dut horrela kentzen eta besteendako gelditzen dira etxeko lur haboroxak. Kusten duzu ?

- Bai segurki. Ideia hori biziki pollita duk.»

Bere beso beltzaran luzeaz ari zen laia goititzen eta arripuru zimikatzen.

« Arrapirua bihurtikatzen hasten denean zimikatu behar da, horrela gehiagi luzatzerat eta zingilatzerat uzteko ordez, zangarra loditzen eta ziritzen zako, beste urteko sagarren lili-laiak horietarik jali beharrak dira.»

Erran zautan ere rugbian artzen zela eta heian halako batez ez nintzanez jinen familiarekin partida baten ikusterat Peyrehoraderat bera jokatu beharra zen igande batez. Baietz segurki erran nakon.

«Eta, uste duka aktinidia hektara pare horrekin aski irabaziko dukala bizian abiatzeko ?

- Baietz ! Gaixo jauna. Bazindaki zer emaiten duten !

Isabellekin esposatu aintzin neure etxea ere egin eta pagatu gogo dut ! Ikusazu. Eta menturaz ikastola baten sortzea ere Peyrehoraden laguntzen ahalko dut...»

- Zeee ?

- Bai bai ikastola !

- Bana hemen Biharnuan gaituk.

- Bai hala da. Baina etzindautana zuhaurek erran

«Oleigts» euskal abizena zitekeela ?

- Bai bai, baina historia ezin duk berriz idatz.

- Bono, hori geroak erranen du. Nolanahiz Euskaldu-  
nekin askazi segurrik gira naski eztea hala ?

- Bai, bai mutikoa. Hala duk. So'egik, nik neure arima  
maz agintzen dauiat hire amentsen betetzea. Jainkoak  
laguntz hezala.»

## FRANTXIX...

lahargia : larru argia

garimaka : neskek bezalako oihu zorrotzekin

arripirua : repousse

lili-laia : pousse qui donne fleur (laia : rameau)

aldaxka : bouquet (de fleur, de fruit)

sagarra : fruitua

Baxoa etzuen eskuratu Frantxixek. Isabellek bai. Ondoko larrakenean Donapaleuko karrigan merkatu egun batez Frantxixen ama topatu nuen.

«Eta Frantxix ? zendako ez da berriz jin eskolarat ?

- Bai guk nahi ginduen igorri eta... berak ez du nahi, ez dakit zendako»

Berehala pentsatu nuen «Isabelle ez den lekua Frantxixentzat zer leku trixtea !»

«Errakozu Frantxixi ene partez, heldu den primadera ran jin dadien azterketak baino bi hilabete lehenago. Arte huntan etxean ikasten artzen bada baxoa ukanen du.

- Bai etxean ari gogo du bai ikasten.

- Errakozu gogotik ar dadien eta helduko dela.»

Eskolurtea bazohan neguan barna. Frantxix ia ahantzia bezala nuen. Beste hoinbeste gazte berrak bethi larrakenean besoatarat ekartzen eta, heieri buru eman behar. Hainbeste iragaiten da.

Noizbait aments gaixto bat egin nuen, oi ! bainan gaixtoa ! Nabarrenkozeko bidez nindohala Pauerat, jakin nuen - ez baitakit nola - amentsen nunbaitik norbait etzagoela untsa han herri batean. Mutiko bat eza-guna, ezin erran neure semea zenez ala eskolako seme bat, nolana hiz neurea... Eta juhanik bere etxerat harra-patu nuen eri, ohe batean jarririk eni so irri ezti batekin, bainan zer irri dolamena !

Irtzartzen eta kopetari joka : «Frantxix eztuk Nabarrenkozeko eskualdean bizi ! Frantxix Peyrehoradeko ondoan duk bizi...» Eta izerdia seinditzen nuen bizkarrean loak berriz nahasten ari ninduela nunbaiteko bide luzeetan.

Biharamunean, kiwi frutatzeak zertaratuak ziren jakin behar nuela ta Frantxixen amak ihardetsi zautan telefonan : «Bai, bai, zato, zato segurki, Frantxix kontent izanen da zure bisitaz...»

«Zure bisitaz...»

Urria zen eta larunbat arratsaldea. Haize hegoa karkallaz ari zen Amikuzeko arto alorretan. Tresna haundiak gizonez inguraturik nun-nahi arto biltzetan. Urtzoak saldoka zohatzen zirurika bortueri buruz. Peyrehoradeko bidea xixtuz bazohan iruzkian herri xurien artez-arte. Eskauzeko sorhoetan ahateak hegoz mensturik kalapitan ta hegalka. Platanoak bide ondoan urrez, haritztegiak gorri, ur-aintziak urdin, han aintzinean Landesetako zerua alai eta juhan-ahal urrun itsas-kolore.

Athea jo nuen. Ama etorri zitzautan idekitzerat.

«Nola zirezte ?

- Bada, zer nahi duzu ? Pollikixago da ...

- Zeer ?» eta so egin nakokeen bitxiki begirat.

«Ez dakizu ala !

- Baina zer ? zertaz mintzo zira ?

- Na ! Eztakizia Frantxix itsuski kolpatia dela


- Espres ari zireta edo barka ezadazu othoi othoi !

- Oh ! Oh ! etzindakien ... oh ! oh ! Frantxixek rugbian bizkar hezurra hautsi du eta paralesiaturik dago here denborako ...» eta nigarrak athera zitzazkon.

Ikusi nuen. Lau xirringetako alkian zagon jarririk. Begitarte zuri ederra irri ezti batekin eni so... lehen, eskolan bezala. Begiak lehen baino urdinago zituen oraino. Pinadoien zerua, Aturriaren dirdira amentssezkoa han berean nuen beraren soan.

Ni erran behartu : «Sendatuko hiz...»

Arpegi ederra bi eskuen artean gordez belauen gainerat bota zuen hipaka bizkarra dangatuz.



JEAN LOUIS DAVANT

## GUREA

Naturaren eta kulturaren haurrak gara, naski. Bizia, naturari zor diogu : zimino egin gaitu. Gizon egiten gaituena, kultura da : izpiritua eta eskua, elgarri ezkondurik, uztarturik, hori da kultura. Kabalatik berezten gaituena, hori bera da.

Buruak asmatzen du, eta eskuak obratzen. Eskuak xerkatzen du, eta buruak aurkitzen, non ez den alderantziz. Biek, elgar eskolatuz eta lagunduz, bat egiten dute.

Elgarrekin, zer indarra. Berezirik, ezer ez, fit-sik ez, deus ez. Tirrit !

Eskua gabe, antzu da burua, deusik ez dezake. Izpiriturik gabe, itsu da eskua, ez daki zer egin.

Beraz ez erran : ekonomia gaizki doalarik, kultura utz geroko ! Autoari moturraren kentzea litzateke, arintzeko aitzakiz. Aitzitik, lana xuhurtzen delarik, burua berotu behar dugu, izpiritua xorroxtu. Aterabideen bilatzeko, eskuen ez hutsik uzteko, hobeki pentsatu behar dugu. Hori da kulturaren eginbide premiatsuen bat.

Hitzekin pentsatzen dugu, hitzekin kurutzatzen gara. Azken finean gizona, hitza da. Mintzairak egiten du gizona, euskarak euskalduna.

Haritza bezala da gure kultura.

Bere lurra badu, buztintsua eta bere zerua, zinez aldakorra.

Batetik bestera, enbor azkarra, gotorra, gogorra, zuzen ala makurra, zubi edo zurubi.

Eguzkia behar du haritzak, bagoaren itzalean ezin da bizi.

Erroen hedatzeko lekua behar du, aski nasaia.

Zuzen altxatzeko, auzoak ere behar ditu, hein bat hurbilak.

Eta hemen, lurraren sabelean, besteen erroak hunkitzen ditu bere zainez,

humus berean urtzen dira denen orbelak.

Eta han, zeruan, haize beretan abesten dute haritzaren ostoeak eta beste arbolenek,

elgar lilistatzen dute haritz guzien lore haziek.

Halere haritza beti haritz dago

eta bere kantu berezia kantatzen du,

bere hameka eriez perekatzen du iparraren harpa

hegoaren gitarra.

Haritza ez da gurbitza, ez da izaia.

Aski zaio bere ostoen itzala.

Oraiko Don Kixote astoz badabila  
Edo bi zaldirekin mutila bezala  
Batetan du gorputza, bestean arima  
Gizon zatitua da gaurko euskalduna.

Santxo aldiz badoa Mercedes batetan  
Bere uhartetxoaz araiz jabetzera  
Kixoteren nagusi egon da betitan  
Errotaren haizetik errex du eihera.

Egiazkoak dira gaurko gizandiak  
Gizonezkoa berriz ehaiten dutena  
Santxok zerbitzen ditu bainan ez ikusten.

Kontsola zaitetz arren, Kixote haundia  
Berdin zatitua da haien erresuma  
Eta gure aleaz ari beti husten.

Oso zatitua da oraiko gizona  
Ta zu zara batasun emaiten diona.

J.L. DAVANT.



maiatz-10

Hinki hanka nabila  
zure bideberriko  
xehelen bistaraino.

Ikusten dut emazte  
ttipi begi urdin bat  
aitarekin haiduru.

Ikusten dut etxe bat  
gotor eta segurra  
dener beti zabalik.

Ikusten dut barne bat  
usu jendez betea  
batahun egilea.

Ikusten dut aldean  
baratze loretsu bat  
ur xirripaz alaia.

Ikusten ditut haurrak  
beren urxintzarrekin  
ekiari kantari.

Ikusten dut ele bat  
baratx eta sakona  
biziaren erraile.

Ikusten dut haritz bat  
nasaia, baketsua  
aire gaiztoak joa.

Ikusten dut bizian  
lekurik ez duela  
zuzenaren galdeak.

Sinesten dut halere  
ezin baitut onartu  
zure hilik uztea.

Sinesten dut hortako  
berriz bizi zarela  
gauaren bestaldean.

J.Y.

«le Monde» Euz

# anarrosa/5



**MIKEL DUPAK**

**HAUSBERO, KAFE, KAKAO-ONDO, ...  
MUREK BIKARI-ERRETOREEN  
HILTZEAREN AINTZINEKO  
SAO- JOAO-DO-PRINCIPE-REN  
ABERATSA !**

## JOAO

Belen-en geroago, gure misione lazgarri horren berri jakin nuen. Hona hemen Añarosa eta biok ihesi eta, zer gertatua zen.

Aspaldidanik, Prai Mathiasak azkarki zapatzen zituen hobenak. Igandē oroz, palmazko-teilatua besterik ez falta izaten zitzaion elizan orduan ematen ohi zen meza ondotik, igande oroz bai, lerrokatzen ziren hobendunak koroa mugatzen zuen zerrailuari kontra sabelak. Bere orzantz bozaz Prai Mathiasak hobenak salatzen eta gaztiguak deliberatzen zituen. Maizenik alferkeria hutsak ziren, Mura batzuk lo egiteko labakia utzi edo baitzuten. Hogei singla hartzen ohi zuten. Batzutan ziren ohointzak, ohatze egite bakanak ere. Askotan aldiz, emazte batek Mathiasen manu orduan jantzi beharrak ziren mantar-zaiak ahanzten zituen. Gizonek ere oihal urdinezko galtzak jauntzi behar zituzten, baina Karmeldarrak zuhurki begiak hersten zituen, gizonak larru huts ibilki zirela eta. Halaber emazte ezkontza-zikintzaleak gaztigu biziki gogorragoa jasaten zuen gaizkideak baino, zeinak erasiak baizik hartzen ohi ez baitzituen. Bestalde, zer zituzten zinez Murek ezkontza eta horren zikintzea ?

«Jaunari zor zizkionan bi ordu  
lan ebasteagatik, hogeí xingla !»

orroatzen zuen Mathiasek. Azotea hatsematen zuen Joâok, berehala jo eta jo ipurditan. Petxeroak, puntika, ikondoak dardaraka, burua eskuetan, ezker-eskuin bizkarra bihurtzen zuen, bainan zerrailuagatik, uzkia eskaini behar zuen. Gelditu gabe ere, urdeak marazaren aintzinean bezala, oihu minegi egiten zuen. Orduan ximenki soberatuak, maltzur-gezurtiak iduritzen omen zituzten oihuek. Orduan, oro keinu ibilirik ere, Joâok laxosko jotzen zuela agertzen omen zen. Murekin har-emanka ari zela Manolok uste omen zuen, indulientziaren truk, ohasareren bat ala palma trezatuzko zaretaren bat eskuratzen zuela, batzutan emaztearekin larru-joka ere. Zonbeit aldiz, ohartzen zen Mathias. Eta berehala :

« João ! »

Orduan xarnegua lotzen zitzaion jotzeari eta hobenduna laister, zerrailuaren gainetik, besoak behera, ez zen gehiago auhen-inarros-zaku bat besterik.

Egun batez, etzan-aldiaren erdian, bat-batean, denak iratzarrarazi zituen ihurtzuri-ukaldi batek : Joâoren etxolaren ondoan oihuka, Prai Mathiasek xarnegu hatsgabetu begitarte urdin dardarikatua lepoa harrapatua zuen :

«Deabru ! Urde ! Ez duk aski Indianekin ?»... «Xarnegu ustel zikin ! Zafratuko haut ! Zafratuko haut !»

Etxolaren barnean, papo ospatsu lodiak oraino agerian, suk harturik bezala, Rufinak zaia lahiatuki jaunzten zuen.

Beti orroaz, noizetik noizera Mathiasek Joaoren lepoa uzten zuen, bizkarrean, aurpegian, erreinetan, garondoan ukumikaldikatzeko. Orduan Joao hankak makurtu eta lahapoka lehertzen zen. Eta berehala ostikoka lotzen zitzaion Mathias !

Alde guztietatik etortzen zen jendea laisterka. Arte laburrez, Indianoek ikusgarria inguratu zuten, ixil-ixilik, ohi ez bezala ohartuki. Mathiasek :

«Rufina ! Joaoren azotea ! Puta likits, entzuten ?»

Etxolatik atera zen beso huts bat, xinganarekin. Hain bortizki kendu zion Karmeldarrak nun Rufinak oihu egin baitzuen.

«Dei egin, urdanga ! Ez hintzen hainbeste entzuten oraintxet !»

(Berriz xutik, hortzak tink, Joaok Mathiasi begi iluna)

«Itzul !»

Xarneguaren bizkarrean xiribola-zapla hasi zen azotea. Boskarren xinglarekin, atorra lehertu zen, eta pedaxuak eraman zituen xinganak. Hamargarrenarekin, odola zirrist. Gelditu zen Karmeldarra.

«Abil !»

Joaok ahoa ere zuen odoletan, ezpainak ausikiak baitzituen. Besoak sabelari tinko, izterrak uxter, bainan xut-xut joan zen.

Mathias zegoen tente, hats-bahi, Joaori so. Indarretan ernatu bide zen.

«Rufina ! Ator ! Hiri oraintxet !»

**MANOLOK KONDATU IZAN ZIDAN  
ITZULTZAILE BATEN BEHARRAGATIK ERE  
ERREXKIEGI EGIN IZAN ZELA GEZURRA  
ERRAN EDO BEREN ERRAN ALDIEN GOGOR-  
KERIA EZTI ZEZAKETENIK EZ ZUTELA  
IDURIZ ASMATZEN ERE MUREK.**

**GURUTZE ALIMALE LATZ HAREN PEAN  
EMAN ZEN LEHEN MEZAN PARTE HARTZE-  
KO MURA EMATZTEKIEK BULAR HANKAK  
GURE KOTOIN OIHALKIEZ GORDE IZAN  
ZITUZTEN.**

**KONDUAK EGIN BEHARRAK IZANEN DIRA.**

**ASKI XARNEGU ZIKINA JASATEN HAUT  
JASATEN HAUT IXILDUKO HAIZ AGINTZEN  
DIAT ENTZUTEN**

**«ASKI !  
XARNEGU ZIKINA !  
JASATEN HAUT !  
JASATEN HAUT !  
IXILDUKO HAIZ !  
AGINTZEN DIAT, ENTZUTEN ?»**

**FUSILAK FUSILAK BEHARBADA IKUSGARRI  
GAITZAGOA BAINAN HIL DEZAKETELA  
IKUSI BEHAR DUTE INDIANOEK**

**«FUSILAK !  
FUSILAK !  
BEHARBADA  
IKUSGARRI GAITZAGOA,  
BAINAN HIL DEZAKETELA  
IKUSI BEHAR DUTE  
INDIANOEK.»**

ETA PRAI JOSE EMANEN ZEN AUHENARI.  
BEREHALA PRAI MATHIAS EZTITU  
EGINEN ZEN.  
PRAI JOSERI SO ETA SO, ERRANEN  
ZUEN KONFITEOR BAT.  
PRAI JOSE EZ ZEN AUHENKA ARIKO  
GEHIAGO.  
KONFITEOR ONDOAN, KREDOARI LOTUKO  
ZITZAION PRAI MATHIAS.  
PATER NOSTER BAT ERRAITEN  
ABIATUKO ZELARIK  
PATER NOSTER BAT ERRAITEN  
ABIATUKO ZELARIK  
PATERNOSTERBATERRAITEN  
ABIATUKO

AITA GUREA ERRAITEN ABIATUKO  
ZELARIK,  
JOAOK HIL IZANEN ZITUEN.

LUZEKI IZIGARRIKI INARROSKA XIFRIKA  
BORROKATUKO ZUEN.....

«EGIAZ, JEAN, FEDEDUN KARGUA  
AHANZTUA DIATE XURIEK. POPULU  
ZAHARROK FUNDITU ETA GAIXTATU  
DIZKIA TE. GATILUTARA BAT TAFIA  
TRUK, INDIANO BATZU HERRESTAKARI  
IKUSTEN DITUDANEAN, EDO JABEAREN  
ZOROKERIA AZPITIK ESKARNIATZEN  
DUTELA, EDO XINGLETAN NIGARREZ,  
MIN EGITEN ZAIDAK, JEAN, HERSTURA  
LOTZEN ERE... HOLAKORIK EZ ZUEN  
JESUSEK NAHI. KABAL GEZURTI BEL-  
DURTIOK EZ».

Bainan bat-batean, Guiscartek :  
«Ez ! Askí ! Bi egunen preso-gel, jan gabe,  
nahi baduzu».

Harriturik, ezpain lodiak erdi-idekirik, begi-  
ratzen zion Karmeldarrak ; boz akituz, erran zuen :  
«Hiru egun. Tapiokatze talo bat eta urekin.  
Ikustaldiak denei debeku».

Joao ardura ibiltzen zen Murekin, eta or-  
duan denak kokorika jarririk, taldeak herriko bil-  
tzarra zirudien. Xarnegua makeski mintzo zen eta  
tipus-tapas buru denak batean oihanari buruz bi-  
hurtzen ziren. Xuriak pasatzen zirelarik, Joaok ixi-  
lik begiratzen zion, begiak garbi.

Itzuli eta, atxeman, luzeki xinglatu eta zerratu  
eragin zituen. Horiek ordaindu zituzten beste hiru  
Murek, gau hartan bertan, ez ziren itzuli. Izialdura  
bitxi batek hartu zuen Mathias : giltzarrapoz hetsi-  
rik gure etxoletatik batetan haien haur-emazteak  
metatu zituen, gauaz gizonak biltzeko goan zitezen  
beldur. Goizean goiz, ordea, hautsia zen giltzarrap-  
oa, etxola hustua. Arrantzaleen presondegia hu-  
tsik ere. Amorrak eta hersturak hartu eta, Mathia-  
sek herri osoa bilarazi zuen.

Bi ordu palabra hasarrerren buruan, sei  
gizonak beren familiekin falta zirela argi eta garbi  
ageri zen. Mathiasek Joaori zernahi erraiten zion,  
giltzarrapoak hautsi zituela, etabar... Egia erran,  
bakarrik, Indianoek ezin zezaketen egin...

Joaok ordea gaixtakeriarik gabekoa zela oi-  
darki zin egin zuen, nigarra begian... Gau honeta-  
tik at, gero eta Indiano gehiagok ihes egin zuen.  
Goizean aurkitzen zen etxola huts hotz bat. Oha-  
sareak, jarroak, aiztoak ere falta ziren, bainan lur-  
rean, gizorde gisa ator-mantarrak, gona-galtzak  
zeutzan.

Zer egin ? Ezin zaindu gau guztietan oihan  
bazterrak !

Indianoak arma-seskarik gabe zihoazenez ge-  
roz, deusek ez zitzakeen geldiaraz. Eguzkialdera  
naski joaten ziren Mura kolonia batzuei bizi ziren  
Ipeka aintziraraino.

Prai Mathiasek iduritzen zuen munduko zori-  
gaitza oro ekartzen zuela bere soin azkarren gaine-  
tik. Zonbaitetan Joseri so egiten zion, hobeki kau-  
situko ote zatekeen xarnegua...

«Bazterretan soldadoak ihizin, tapuyak arrain-  
tzan ; Egun oroz Prai Jose ameslari zegoen,  
otoitzetan agian ; Prai Mathias han hemenka  
ibilki, oihanetik ibaira eta ibaitik elizara...  
Ezin bururatuak ziren egunak.

Joao eta bere nausia elgarrenganatu ziren  
azkenean. Barkamendua ardiesteko, Joaok oi-  
hanean ihizlari joatea eskaini izan zuen. Fusil  
bat eskuratua zuen eta argi hastetik joaten  
zen. Gero eta urrunagoan tiroak entzuten ge-  
nituen. Gaez itzultzen zen, irribera, zarea i-  
hiziz betea.

Orain uste dut Murengana joaten zela,  
hilketara haien berotzeko. Nihork alabainan  
ez nihoiz zion susmatu. Kozinertsa indianeta-

tiko batek ekartzen zuen txoritan gezi-zauria aurkitu zuenean ere ez. Joâok ez zuen bazka ustegabetarik ebatsia zion ihizlariak trufaz besterik egin. Nik aldiz, gaitza prestatzen ari zela usnatzen nuen. Azotatua izan zen egunetik, hain zuzen. Hartaz pentsatzen nuen ba-koitzean, ikusten nuen odol-lano batez ingur-  
ratua. Bainan, ez dakit zergatik, Prai Mathias hiltzera saliatuko zela bakarrik uste nuen. Aitari erraitera ausartatu nintzen ere, bainan zoritxarrez nitaz trufatu zen».

Gobernadorearen galdeei erantzuten zien Rufinak.

«Noiz xuxen izan da sarraskia?»

«Duela hamabi gau».

«Soldadoek gogor egin ahal zezaketen?»

«Batek ere ez!»

«Mamu ilun batzu bezala leihorretatu ziren Indiano zikin horiek. Ur firfira zenbait baizik ez nuen entzun, ibaiaren ohiko palasta doi-doi iduri.

«Zenbat ziren?»

«Ez dakit batere. Bainan kasik untzi bakoitzak tortxo bat zekarren, eta denak helduak izan zirenean, su-epal alimale bat izan zen».

«Herrian baino gudari gehiago?»

«Ainitz gehiago, nik uste, bai.

Etxoletara oldarrean bat-batean oihuz hasi ziren, izigarria zen heiagora. Gero, etxolak, eliza, Gurutzea suak hartu zituen. Erran dizudan bezala, Jainkoari esker, ezin lokartuz, oihan bazterretatik nembilen; garbiki ikusteko urrunegi nengoen; halaxe biharamunean alde egiten ahal izan nuena bakarrik izan nintzen».

«Prai Mathias? Prai Jose? Europarrak?»

«Senhor Elixondo eta neska xarnegu bat galdu izan ziren aintzin hartan. Amodioz zoratu eta, Indiano talde lapur batek eraman izan zituela pentsatu genuen. Ez genituen gehiago ikusi. Seinale gaixtoa izan zitzaigun. Senhor Manolo, Senhor Guiscart hilak ikusi nituen goizean, beste guztiak bezala».

«Ibaira itzuli aintzin, bi gurutze larri egin zuten Indiano zikinek. Bizitan atxiki zituzten Prai Mathias eta Prai Jose. Gurutzei josi zizkieten. Argitan orduan ziren biak. Begitar-tean, bularrean, odol-mailak zituzten. Ixtant bat, geldirik egon ziren, zuri buruak bermaturik. Zernahi erraiten zien noski Joâok. Ikusten nuen orô keinu, burua higitzen, bularra jotzen, toleatuak bata bestearen ondotik hatzez erakusten. Bainan ez nuen entzuten zurrumuru karranka bat baizik.

Bat-batean, Mathias basaki hasi zen jauzika, bere besoak gorputzaren zama lehergarriaz arindu nahi izan balitu bezala. Eta Prai Jose eman zen auhenari.

Berehala, haiei beha, João gelditu zen. Tipustapas Prai Mathias eztitu izan zen. Prai Jose so eta so, erraiten zuen Konfiteor bat. Prai Jose ez zen auhenka ari gehiago. Prai Mathiasen boz hats-gabetua hautsika entzuten nuen. Konfiteor ondoan, Kredoari lotu zitzaion. Pater Noster bat erraiten abiatzen zelarik, azta-ukaldiz Joâok hil izan zituen.

JOAOREN ETXOLAREN ONDOAN OIHUKA  
PRAI ETXOLAREN BARNEAN PAPO OSPATSU  
LODIK MATHIASEK XARNEGU  
HATSGABETU BEGITARTE ORAINO AGETIAN  
SUK HARTURIK BEZALA URDIN  
DARDARIKATUAREN LEPOA HARRAPATUA  
RUFINAK ZAIA LEHIATUKI JAUNZTEN ZUEN  
ZUEN DEABRU URDE EZ DUK ASKI  
INDIANEKIN RUFINA JOAOREN AZOTEA  
PUTA LIKITS XARNEGU USTEL ZIKIN  
ZAFRATUKO HAUT ENTZUTEN ETXOLATIK  
ATERA ZEN BESO HUTS ZAFRATUKO HAUT  
BETI ORROAZ NOIZETIK BAT  
XINGANAREKIN HAIN BORTIZKI KENDU  
NOIZERA MATHIASEK JOAOREN LEPOA  
UZTEN ZION KARMELDARRAK NUN  
RUFINAK OIHU EGIN ZUEN BIZKARREAN  
AURPEGIAN ERREINETAN BAITZUEN DEI  
EGIN URDANGA EZ HINTZEN GARONDOAN  
UKUMIKALDIKATZEKO ORDUAN  
HAINBESTE ENTZUTEN ORAINTXET RUFINA  
JOAO HANKAK MAKURTU ETA LAHAPOKA  
ATOR HIRI ORAINTXET BAINAN BAT  
BATEAN LEHERTZEN ZEN ETA BEREHALA  
OSTIKOKA XURIEN BURUZAGIETAIKO  
BATEK EZ ASKI LOTZEN ZITZAION MATHIAS  
ITZUL BERRIZ BI EGUNEN PRESO GELA JAN  
GABE NAHI XUTIK HORTZAK TINK JOAOK  
MATHIASI BADUZU RUFINAREKIN LARRUA  
JO NAHI BEGI ILUNA  
ZUELA

NIGARREZ URTU, MATHIAS URDE KAKA  
MUSURKARI ZIKIN HORI!

XURI ALU ODOLTZALE !!! HIL HADI !!!



Laister Prai Joseren burua erori zen.  
Mathiasenak aldiz luzeki, izigarriki, inarroksa,  
xifrika, borrokatu zuen...

«HIRU EGUN  
PRESO.  
TALO BAT  
ETA URA.  
IKUSTALDIARIK  
EZ».

Nihork ez bide zuen uste Añarrosak eta nik  
ihesari emateak eta Indianoen jazartzeak elkarrekin  
zer ikusirik zutenik, eta nihork ez zidan auzirik  
egin. Erran nuen bakarrik Mesaiek hartua izan nin-  
tzela eta gero eskapatzea kaustua izan nuela.

Ez eta Amazona bazterrean patrulla batek  
Rufina, akitua baina osagarriduna, aurkitu zuenean  
ere, nihor ez zen harrtua izan. Nik aldiz, Rufinak  
bere kondatzean, nik bezain, itzal alde batzu utzi  
zituela sumatzen nuen.

Zonbait aldiz haren ikustera joan nintzen, ha-  
larik ere bakoitzean ihes egin zidan.

Bainan tira ! Baketsu bizi dadin bere segere-  
tuarekin.

**ZAKIL MERTZIL ZIKIN HURA !**

**EGUN BAT BAIZIK EZ NENGOEN PRESO,  
GUISCART ESPANTULARI HORREKIN  
ETZANALDI BATZUREN HITZ EMANEZ  
GERO !**

**PRAI JOSERI SO ETA SO ERRAITEN ZUEN  
KONFITEOR BAT  
PRAI JOSE EZ ZEN AUHENKA ARI GEHIAGO  
PRAI MATHIASEN BOZ HATS GABETUA  
HAUTSIKA ENTZUTEN ZEN  
KONFITEOR ONDOAN  
KREDOARI LOTU ZITZAION  
AITA GUREA BAT ERRAITEN  
ABIATZEN ZELARIK  
AZTA UKALDIZ JOAOK**



Buruz behiti . HEGOARI

Ilargiaren errotan  
goazen biribilka.  
Buruz behiti  
zangoak zerura  
karmañolez karmanola  
goazen biribilka  
osto zimelduetan  
elgar arrapaka.

Haizatu nuen haizea,  
haizera,  
urrun,  
joan zedin  
hurbiletik urrunera.  
- Nik etsitu gabe,  
etxeko leio zuriak  
hetsi ditut.

Haizea urrun joan zedin,  
uxatu dut, uxu ! uxu !,  
ufatuz, ufa,  
matela sakoletarik.  
Ixil,  
ixo ! ixo !  
ixildurik,  
sartu naiz aterpean,  
leio zurien,  
pean.

Begiz-begi zuri begira  
amesten ditut hamar itsas bazter  
hamar xixtu soinu  
hamar hitz ixilek erran eztitasun guzia.  
Haizearen pare izan naiteke, haize,  
mendiaren gainetik zureganatzeko,  
lorearen pare izan naiteke, lore,  
usain bakan gozoak  
zureganatzeko.

Begiz-begi, larruz-larru  
gure bihotzen soroetara  
goazen,  
usain gozoak, lore bakanak  
eta iheska joan zaizkigun berdadura freskoak  
gureganatzeko.

Harriz-harri erreka punpaka doala  
egun berri baten atarian  
ottiak kirrikatzen du.  
Begiz-begi zuri begira  
amesten ditut hamar itsas bazter.

Begiz-begi zuri begira  
amesten ditut hamar itsas bazter.

# MANEX LANATHUA

Larrazkeneko osto ximelaren altzoan,  
izar trosten eta zirrikaden pean,  
maitaleen euri pean.

## FERMINI

Sakela ziloetan.

Galtzak hertsu gerrian  
tripako minek kurrunka,  
espartin beltzak zuri errautsean  
aztalan kalitxo  
zirtzil,  
biki beltzaren gizenak biloetan  
hortxet noa  
laborari heziaren mahastian  
xori gorri ohildua.  
Golkoen zirristak sabelean  
pozoin ubelen kirestasunak zintzurrean  
ihaloskatzen naiz eta zikintzen  
mozkorkerien parabisuetan.

Hastio ditut ur garbi guziak  
eta maite ezpain zokoetako bapore esnetsuak,  
begiak lanbrotsu  
usain tzarren amoretan  
banoa laborari heziaren mahasti herrunketan  
ukomiloak asarre  
sakela ziloetan.

## BEHARRONDOKOA

Ez dugu bizia norbaiten seme  
edo alaba izaten  
gastatzen ahal. . .

Euskal mundua, euskal familia  
trinko eta zuhur bat bezala  
eraikitzen duzue :  
aitatxi hitzen gerlan hazia,  
aita larderia saïnduz betea,  
semea aitaren idurikoa,  
eta  
apez gurbil diren osabak,  
serora joan izeba kartsuak. . .

Non dago amen et alaben lekua ?  
Gu emeak zertarako gara zuen artean ?  
Aitatxiren, aitaren eta semearen sendiak  
bitxikeriak, absurdoak garai batetik  
bestera iraun arazteko ? Bakarrik ?

Aitatxi, aita, semea, osabak, izebak,  
kusiak, arrak zuti zaitetze Jainko :  
«Euskararen geroa ebandelioaren  
esperantzari lotuko dugu, gure  
hizkuntzaitzakia gal ez dadin !»

Ama edo alabak zeozer erraten badu  
hain fededunki erabiltzen duzuen  
euskara madarikatu hortan, diozue :  
«Ago ixilik, solas hauek ez ditun  
hire adinekoak, beharrondoko bat  
bilduko dun, ezpahaiz ixiltzen, ez  
ote dun ikusten aitatxik, aítak,  
semeak, osaba apezek eta izeba serorek  
segur merezi dunan baino gehiago,  
beren maitasunaz gerizatzen hautela !»

Eta zer ?  
Et ta soeur ?  
Ez dugu bizia norbaiten seme  
edo alaba izaten  
gastatzen ahal. . .

1984eko azaroan

Itxaro BORDA.

**hooo....**

**....OOOH**

## HIRE GORROTOAZ

hi euskalzale zintzoa  
bidezko euskaldun bakarra  
gogorra haiz  
euskaraz mintzo  
diren jende arruntekin,  
baina lainoa eta milikaria  
erderaz hiri zerbait  
diru  
ohore  
kultur zentroetan  
leku  
eskaintzen dizkaten  
gubernuko mezulariekin.

Egun batean boterearen  
kaka usain zirringatsuan itoa  
iratzartuko haizelarik  
ikusiko dukek hire  
herra  
gorrotoa  
mesprexua  
ez dukala tokirik egokienean  
erabili,  
eta orduan  
gure aldetik  
ez duk barkamendurik  
ardietsiko.

Anartean josta hadi  
zikin hadi  
desbalia gaitzak,  
hi euskalzale zintzoa  
bidezko euskaldun bakarra...

Itxaro BORDA



maiatz-17

## COME BLACK 1

Udaren bero hartan  
esperantz bideak hertsiz  
nere gorputzeko  
daldar dudakorrak ito,  
urratu zenizkidan.  
Uste nuen ez nintzela  
gehiago zutik  
bizitzen ahalko,  
baina sendatu naiz  
askatasun zabalean  
irri dagit  
zauri guztien gainetik.  
Eta berriro  
erortzen banaiz  
jakingo dut  
jakingo  
maitasun baten azken hatsak  
beste maitasun baten lehen urratsak  
direla.

## COME BLACK 2

Ahantzearen iturrietan,  
nehoiz agortzen ez diren uretan  
garbitzen naiz,  
gehiegi eta debalde  
min egiten didatenean.

Mundua maitatzen segitzeko  
minberenak diren sentimendu garratzez  
mundua maitatzeko  
nere bihotz ttikitik  
gorrotoaren erroak  
kentzen  
mozten  
ditut. . .

## COME BLACK 3

Zertarako doan  
pentsatzeko denborarik gabe  
bizitza badoa,  
arrazoi ala ez  
bizi behar baita !

Zoriona non den  
bilatzeko denborarik gabe  
bizitza badoa,  
zoriontsu ala ez  
bizi behar baita !

Laster, lasterka  
ezer galdu gabe  
dena eta orain  
egunero  
orduero  
heriotzeraino  
bizi behar baita !

Itxaro BORDA

# Kastua tüpü

Bertso berri batzuek noa kantatzera  
bihotza alegera solas plantatzera,  
zazpi urtez nerekin egon da atzera  
orain joan dadila porru landatzera !

Herriko pesta batez nuen ezagutu  
(ardo gorri gehiago otoi emaguzu)  
kolpo hura edanik usu naiz damutu :  
geroa mintzo bada, neretzat da mutu !

Urtean behin ginen bi biak ikusten,  
katilua ginuen elgarrekin husten :  
ordea herdoildurak markak ditu uzten  
zakil eta aluak direla lanpusten !

Pentsamazu Katixa, hau bizia dela  
zer nahi gerta ere, iduri igela,  
zazpi urte hauetan berari fidela  
nehor hunkitu gabe gelditu naizela !

Denbora joana zaut oi ze negarretan,  
hari amets egiten ohe meharretan,  
edo nihaur goxatzen ordu zeharretan  
trankil etzanik urak busti belarretan !

Alafede Katixa karkuletan nago  
zahartuago eta gaur abiltzenago :  
atxiki nahi banau beti hurbilago  
etorri beharko du segur ardurago !

Fini dira neretzat, akabo xangrinak  
fini ere haiduru egoiteko grinak,  
auzo xarmantarekin termine ezinak :  
bideak zila bitza gure atseginak !

Bertsutan ariz dela bertsutan ikasten  
apezek asko dute hortan irabazten,  
bertsolari gazteak hitz ederrez hazten  
segi bezate beraz, bertsoa ikazten...

Aritzen naiz bertsutan herriko zokoan  
gauak dituen irri negarren zozoan :  
gizon batek uzten nau, beste bat gogoan  
daukat eta aintzina egunen mokoan !

Itxaro BORDA.

**aa aaaa ah !**

**bai...**

## LUR MAN...

Jonek alderdi guzietan, eta naski haizeen aurka, lurra maite zuela oihukatzen zuen. Aditu nahi zioten beharri bere lurra gustatzen zitzaioa zion. Lurra, Aturri eta Ebro artean, iparretik hegora luzatzen zen eremu zabal hura.

Laket zitzaion herriko zelai, karrika, mendi eta plazetan ibiltzea. Bere herria ez baitzen besteak bezalakoa. Jonen iduriko zerbait gehiago bazuen. Ekaitzetan sufritzen eta euri zarametan atsegin hartzen zuen herria zen hau. Inguruan zabiltzan jendeek nardaturik entzuten zuten, bere lurraz maitemindurik zabilan Jon hori. Zioten burutik joana zela, eta horregatik bitxikeria haziak ereinak zaduzkala kasko zokoan. Ordea, berarentzat, Jon etzen mentsa : ongi bazakien lurra maite zuela...

Batzuetan, bakartasun latzean negar egiten zuen, «beste» madarikatu haiek etzutelakoan konprenitzen, edo ez konprenitu nahi, kasik berdin baita ondorio kondu... Eguntto batez joan zen herriko bideetan, behin eta behin, bere lurraren edertasun gorde, intimo, misterioetsua miresteko. Punta elurdunean saiak haragi usteldu puska bat partekatzen ikusi zituen, ibai garden bat segitu zuen bere harpe hotz ilunean gerizatu iturriraino, ostatu keztatuan patxaran baso gordin bat klikik edan zuen, neska eta mutil oparoak begiztatu zituen ; Jon etzen sekulan enoatzen bere lurreko bidexka errautsuetan ibiltzen. Nahiko zuen «besteak» ez bezala herritik atzerrira ez joan, lan bila edo zorion eske. Ez joan... lurra maite baitzuen !

Beti hitz berak zituen espainetan : batean, bere lurra ama bati konparatzen zuen, bestean bere kide elkorreri salba zezaten galdegiten zioten. Delako «kide elkorrek» herri diferentak, lur aberats desberdinak zituzten gogoan, eta Jon bakartasun zuizidagarri batean uzten zuten.

Jon, azkenean, «beste» haien itxura hustu horietaz nekaturik bide bazter batean jarri zen, zeinulili brioleten artean. Lurra haztakatu zuen bere bi eskuekin ; buztin mokor bat hartu zuen eta ahora ekarri. Lehen ahotra iretsi ondoan, ohartu zen lurra zintzurtean behera arras zailki jausten zitzaioa. Pentsatu zuen : «beraz «beste» madarikatu haiek lurra jastatu dute jadanik, eta ona etzenaz geroz erabaki beren lurra etzutela maite !».

Jon tematu zen. Lurra maite zuen. Belar multxo bat kendu zuen lurretik, eta jan behi komun bat balitz bezala. Zeinulili eta orroibelar sorta bat ere ahoratu zuen. Urrunago joanik, bere urratsak ibai hegian pausatu zituen. Urak berriki busti lur puska bat hartu zuen... A bai ! lur bustiaren gustu fresko sukratu hori ; eguzkiak kixkaildu, xigortu, legortu lur busti hori : bere lurra zen, hain maite zuen lur hura !

Ondoko asteetan zehar, udaren beroak izerdi perlak ferekatzen zizkiola, lurrez ase zen, egunero haragi eta ogi baino lur gehiago zeman tripara. Zizareak, har malatsak, sator hilen zitzi pasatuak, denak jaten zituen. Janari aberatsez hazten zen ordu haietan. Lehenago gosea bazezagun, bideetan «lurra maite dut» oihukatuz zabilalarik adibidez, orain etzen horrelakorik.

U  
LUR  
Aire  
t  
ama  
m m m m  
i  
nere  
LUR

Urte baten buruan hurbil, lurrez baizik etzen asetzen. Lagunik etzuen, adiskiderik ere ez. Mundu razionalean gelditu ziren haiek, geroaren beldurrez. Besteak, gizonak hiltzen ziren bezala desagertzen ziren, beren herio ederraz, azken hatsa jabeari itzuliz naski. Jon bizirik zagon. Noiz arte ?


Landa irauli batean, ildoen erdian jarri zen ondarrean. Besoak, zangoak, tripako gantzak eta hertzeak, burua, begiak, belarriak lurtuak zitzaizkion, denak salbu bihotza eta ahoa... Hauek ez ote ziren gizona gizon sendi arazten zuten elementuak ? Nork daki, behar bada ez... Esku lurtuaz, bere gorputzeko beste zati lurtuak jaten zituen, kasik bera konturatu gabe, bere buruaz asetzen hasi zen. Zangoak iretsi zituen, korpua, besoak, eriak ; ahoak bihotz lurtu berria iretsi zuen, biloak, begiak, belarriak iretsi zituen, eta azkenean ahoak ahoa iretsi zuen...

Lurrak bere errailetan hartu zuen Jon gizaizo maitemindua. Lurrak emanak oro jaten zituen, etzuen sekulan aserik. Oraindik ere, landa ospetsu hartarik, laborari anonimoak, udalatzen duen aldikal, golde pean Jon zenaren oihu eta garrasi lurtuak entzuten ditu, «lurra maite dut» deiadarkatzen dutela.

Lurra maite zuen...

Itxaro BORDA.

maiatz-19



# TREIN

i i i n n n n

# VAIN

...

Itxaro BORDA.

Taxi urdin batek geltokiraino ekarri ninduen. Beti bezala, Pariserakoan, bakarrik nindabilan. Etxekoek lan sobera bazuten nere segitzera etortzeko. Eta, bakarrik nindagon, maletak eskuan, Baionako itxoingelan.

Kanpoan euri fin bat zegien, begietarik jarin negarrak bailiran. Besterik gabe. Bustia, larruko zilo guzietan sartzen zitzaidan, azala freskatuz eta arpegia bera disdiraziz. Ez nintzen trixte. Geltokiko giroa melankoliaz betea zela aspalditik ohartua nindagon. Ez nuen, ere, trixte izateko arrazoinik !

Pentsatzen nuen, uda minean kurutzatu gizon hari. Idazteko gutizia eman zidala, euskaraz eta erdaraz izkribatzera bultzatzen ninduela, bi hizkuntzetan atsegin berdinarekin. Lehenagotik nuen erdararen herabe hura ezabatu zidan ondarrean, eta pozik nindagon. Ez nuen erdaraz, oraindik, mirakulu handirik egiten, baina emeki emeki...

Jendeari behatzen hasi nintzen, nere burutazioetarik ateratzeko. Bazoatzin haiek ere maletak eskuan, zerbait maitasun balizkakoren bila. Beharbada, so beltz batean, noizbait, aurkituko zuten beren heineko zoriona-bakoitzak bere neurrikoa atzemaiten duelakoan—. Gehienak jarririk zagoden

kasetak arinki irakurtzen, edo zigarro rubiak erretzen ; besteak harat-honaraka ingurumena hurbildik miatzen. Hau dena teatro italiano bat baizik ez zen, comedia dell'arte bat, gizakiaren kondaira la-tza antzetzeko leku anonimoa. Horregatik, mixterio lilluragarri horregatik asko gustatzen zitzaizkidan tren geltokiak. Bai eta hor edaten diren kafe expresso meharrak...

Azkenean, guziek igurikatzen ginuen treinkorail hura hegotik etorri zen, errotak burnizko ardatzetan saminki sufriaraziz. Eskuak belarrietan ezarri nituen, hiltzen ari den abere orro luzearen ez entzuteko. Erraietan min zemadan burua inharrosten zidan, gogoa eskubitik ezkerretera zilatzen... Jendeak mugitzen ikusi nituenean treina gelditua zela konturatu nintzen. Hotza. Bihotza. Zorrotza. Arro-tza.

Maletak eta kioskean erosi B.C — B.G aldizkaria hartu nituen. Treinera igan nintzen, izigarriko xinaurritze hortan galdua. Arras xinaurritua naski. Maitaleak elgarri muxu samurka. Konpania hone-tan, ordea, ordua ordua da : zein zaila den berez-tea, urruntzea, hurbiltzea, joate xoilu. Trein batek daramana, halere, iparretik beste batek kaiertze berdinerak dakarkizu...

Ni ere maitemindua nintzen, eta Auzterlitzen nere maitea nere zain ukanen nukeen. Esperantza bat baino gehiago, ez segurtagen osoa ! Ibilaldi luzean, hari baizik ez nuela pentsatuko eta halatan zazpi orenek laster iraganen zitzaizkidala gogartu nuen...

Treinean, leihoari hurbil jarri nintzan. Ondoan, Akizen, adineko emazte pulposak lekua hartu zuen. Aldizkaria irakurtzen narraikan ; beti berri berak : Libaneko gerla, Tchadeko gerilla, Khadaffirekilako solasak, Edmond Mairen sindikatuari buruzko artikulu sakona, Paris Saint-Germain futboll taldeak nola Torinoko Juventus bina goalekin menperatu zuen, Koxeluis Borges argentinoa zergatik, aurten ere, ez zen Nobel sariaz ospatua izan, eta, «Jediren itzultzea» Lucasen filma berriaz egin kritika larria...

Aldizkaria nere belaunen gainean pausatu nuen, eta jadanik Bordelen ginela ohartu nintzen. Jakin banu «Magazine Hebdo» hura ere erosiko nuen, ikasteko gertakari horietaz guzietaz zer ziokeen eskuneko aldizkari dirutsu horrek. Baina debalde !

Nere ondoko emaztea mintzatzen hasi zitzaidan, Parisera zoala erran han lan baitzegien Frantsesa arrotzeri erakasteko instituto batean. Nolaz nik ere euskara erakasten bait nuen udan, gure metodo berezietaz arizan ginen hizketan... Ixildu ginean pentsamenetan urtu nintzen : ardurenean, jendeak beren bakartasunetan gortzen dira. Hitz bat eta, segidan, haien elaire galernatsak gaindi ez dezakeen leize bat irekitzen diozute. Badugu, orok, mintzatzeko beharra, gerizatzen gaituen barrakia hauts ez dadin. Prolema norbait beroren atzemaita da, baina denak keinka berean gaudela jakinik, hitz bakar batekin aski daiteke... Ez daitezke solasak bihotzean metatzera uzten ahal. Zamak badiara partekatzeak.

**Dino Buzzattiren «Tartaroen mortua»tik :  
«Drogo ohartu zen, zein neurritaraino gizonak bat bestetik bereziak dauden, elgarrentzat duten samurtasuna gatik ; ohartu zen nor edo nork sufritzen badu besteak ez duela sufritzen, eta bere minak bere bereak direla, nehork ez dezaiokeela laguntzarik ekar ; horrek degiela bizitzaren bakartasuna...»**

Neketan erabili hitzek negar egiteko gutizia eman zidaten. Nik, alta, ez nuen sufritzen. Alde batetik bai : nere maitasunaren berria ez bait nezakeen zabal munduari. Hori aski zitzaidan. Emazteari buruz itzuli nintzen, eta konturatu nintzen joana zela, edo behintzat ez zagola gehiago nere ondoan. Beste jarlekuetara luzatu nuen soa : berdin, nehor ez zagon trein hontan. Pentsatu nuen, gogoaren baketzeko denak Saint Pierre des Corpsen jautsiak zirela, eta leihotik beha gelditu nintzen...

Ingurumena aldatu zen. Ez ginen Tourainako eskualde lasaietan ibilki. Urrunago gindaizkeen. Oihan orlegi hezetsu batean sartu ginen, arboletan sugoia koloretsuak baziren eta uretan krokodil gogotak. Lurrean haztu autobide zabal baten hegitik pasatu ginen. Non nindagon, nora nindoan, ala ez nuen sekulan Auzterlitzen maitea berriro besarkatuko ? Eskakintzak nahasi zitzaizkidan buru zokoan... Trein hau ez zen amets bat. Ametsak negiz-

kien iratzarrean ere, baina gaurkoan, Baionan treina igotzean ez nuen ametsik egin. Egia zen. Beldurtu nintzen, eta beste bagoietan zehar jendeak ikusteko abiatu. Nehor. Inor. Lokomotiban ere gidaririk ez zagon. Trein erotu honetan bakarrik nindabilan !

Bide bazterrean, gizon-emazte talde batzuek, zituzten lastozko etheen atarritik, nere treina agurtzen zuten. Azal gorriak : sumatu nuen hauek ez zaitzekeela nere herriko bizidunak, nahiz nere herriko toki bakarretan lurra indioen larruaren kolorea duen...

Non nindagon, nora nindoan...

Treina gero eta lasterrago bazoan. Argiaren lasterrean. Makina ez nezakeen kontrola, tresnerian ez baitnuen deusik ezagutzen. Nitau ez nukeen sekulan horrelako antsirik nabaditu, edo senditu. Beldurra. Bizitza. Treina. Izidura bezalako gogortze batek hartu ninduen, burutik, bizkar hezurreen gaindi, aztaletaraino. Zaillegi zen, denborak menperatzen ninduen, ez nuen segitzen ahal. Bakarrik nindagon, beraz, galaxia galgarri honetan, eta nik bakartasuna ez nezakeen gehiago jasan. Lokoman erori nintzen...

## end of life...

Komatik atera nintzenean, treinik ez nuen ikusi. Treina bere lasterrak hautsi zuen. Beti berdin zen : iratzar orduan ohartzen zinen zerbait faltatzen zitzaizula, ez gauza materialik ordea, baizik eta gauetan amesten dituzun gaien kolorezko itxura imaterialak. Eta ohar ez zaitzekeelarik hila zinen jadanik.

Gaitzeko buruko min batekin zutitu nintzen, urrats nekatsuka lurgain hormatuan ibiltzeko. Ez nakien, funtsera eta, ez nukeen jakin nahi ere, nora nindoan. Aurrera hegoruntz... Norbaitekin solasean artzeko gutizia nuen, edo behintzat, oihuka inguruko mendiak inarrosteko. Saiatu arren, ez zitzaidan hitz ozen den mendrenik jalgitzen zintzurretik. Alta beldurra bera joana nuen.

Bat-batean, haur denborako amets-inguma bat bailitza, lurra zangopetik ihes zegidan. Hutsara eroriko ote nintzen ? Bai, ezpazioaren neurria galdurik, borrobilka erortzen ari nintzen, hutsak tiraturik. Nahiko nuen, bazter hotzeri lotu, baina eskuak kotoizkoak nituen eta ez nukan indarrik aski. Erortzen ari nintzen... Hutsaren kolorea, urdina zen, geroxago grisa, eta ondarrean beltza !

Orroitzen nintzen nola, amarekin ogika nindoalarik, errege bidean, ehorzketa beltz bat elurrean pasatzen ikusi nuen. Auzoko gizon zahar batek azken hatsa elurraren lehen lumak teilatua hunki zuenean eman zuen. Orroitzen nintzen, berdin, larrazkenetan, elge irauli berrietan zein beltzak ziren zizare eta marmuxka airean bazabiltzan beletak... Orroitzen nintzen, omiasaindukari, herriko elizan tela beltza desplegatzean kantatzen genituen hitzetaz :

**«Jauna, betiko heriotzetik ni begira  
jinen denean izigarriko egun hura  
zu etortzean mundua sutan jukatzeraz !»**

Erraietan ikara kontrola ezina sortzen zitzaidan aldial.

Nere erorketa etengabea, gaina eta behera nahasirik, gizon aguretu bat kurutzatu nuen. «Aita !» asmatu nuen. Zaintzen ari zen sutik, ahurra beteka, hartu hautsa begietara aurdiki zidan. Itsutu ninduen. Begietarik sufritzen nuen iragan udan bezala.

Gelditu nintzen. Begiak eskuekin torratuz garbitu nahi nituen, baina ezin. Agureak besoetan tinkatu ninduen, eta bere ahoko tu gaziáz hain laster galdu nuen ikusmena eman zidan. Ibai zabal baten ondoan ginauden, eta inguruan mortua hedatzen zen. Ortzazean palmatze orlegiak ageri ziren. Pentsatzen nuen hau dena bitxikeria bat zela, ohitan mortuetan ez zela horrenbeste urik, eta arbolak arras beka zirela. Ez nuen dudarik : honaraino heldu eta aintzina joan behar nuen. Bizitza borroka zen...

Zauri guziak jabaldurik, ibai hegian agurearen eskubian jarri nintzen. Ez nuen goserik, ez nuen logurarik, ez nuen maitasunerako desiorik. Ala hutsak Jainkotu ninduen ? Negartzeko gutizia : baina malko iturria bera agortu zitzaidan. Horrelako la-saitasuna...

«Aizu, neska, munduan zehar ixurtzen diren negar itoiz guziak ibai honek egunero eta gauero, eguzkiaren ibilera hurria segituz, sortaldetik sartal-dera daramatzi...» erran zidan agureak. Ez nuen, aspalditik, solas berdinek entzun edo irakurtu. Kontsolagarri. Mintzatzen zarraikan : «Diozu, neska, nehork ez zaituela maitatzen, egia daiteke, baina jakin ezazu ilargiak zaintzen zaituela. Hura ez duzu abandonatuko, bestela gauaren bakartasunean zoratuko da. Arrastiri arrosetan, igortzen dizun irri bakezaleari ihardetsi behar diozu. Eta ilargiak bere lur errausdunetan, gerizan, hartuko zaitu !» Espainetan irri bat sortu zitzaidan. Egia zen, gauak dantza arazten zituen astre urdin hori sobera ahanzten nuela...

«Bizi zaren herrialdetan, batzuek baldin badiole gaizki daramazula zure idazle saila, ez kasurik egin : zuk zurea atera behar duzu, eta besteek bere-na. Horrela bakartasun xoietik at betikotasuna eta unibertsaltasuna ardiesten dira. Ez kasurik egin otoi...» Nere baitan «zuk zurea» hitzek haragia mailukatzen zuten.

«Gainera bizi zaren herrialdeetan zuk uste baino gehiago jendek, zuhaur bezalako xoriburu ari-nek, maite zaituztete. Baina zure urgulu mentsean nahiago dituzu etsaiak kondatu, hertzetan dauka-zun haserrea kanporatzen eta menperatzen lagun-zen zaituztelakoan...».

Urari sogin nuen, han nere gorputz harrek ja-naren itxura bait nakusan. Soa luzatzearen bortxaz urgaina zimurtu zen, agerpena irentsiz. Agurea ixil-du zen. Keskati nion behatu ; nolaz hain ongi eza-gutzen ninduen pasatu zitzaidan kaskotik. Eta ne-re pentsamenak haren muina hunki balu bezala ber-riz mintzatzen hasi zen :

«Badakit, neska, munduan bazabiltzala gal-dua, indar bero guzien jostagailu, eta zure destinoa-ren giltzak edozein lan debaldezkotan, edozein sa-bel ilezuetan bilatu nahian. Badakit dena neska... Lehenik, behar dituzu egin dizkizuten minak sen-dat, gero aurkituko dukezu arraileriaren hormak preso atxikitzen dizun zintzotasuna, eta azkenean zure pentsametan edo zure ekintzetan hainbat falta zaizun sakontasuna eta gelditasuna...».

Lehen aldia zen ezagutzen ez ninduen batek horrelako hitz saminak ahozkatzen zizkidala. Ingu-ratzen ninduten alegiazko lagun-adiskideek nere eguneroko zirkoaren beharra bazuten, eta hein hor-tan konplexanki, dena baiesten eta onhartzen zu-ten. Ni erregearen zoroa nintzen, haien zorokeria osoa bizkarrean nakarrela !

Jadanik agure hau maite nuen. Ibai ertze ho-netan, mortu hutsean pausatze gogo nuen, aska-tasan berriaz asetzeko, jainkoen bakeaz betekoz mozkortzeko. Baina agurea zutitu zen erranez : «O-rain, neska, zoaz ! Nerekin gelditzen bazara, nere hitzen esklabo bilakatuko zara... Bakoitzak badu bihotzean gordea norbaitekin partekatzekoa duen askatasun abarra. Zoaz, neska, hortik duzu bidea. Abia zaitez palmatze hartaruntz eta han hiri bat atzemanen duzu». Eta agurea ondarrean desagertu zen. Berriro bakarrik nintzen. Beti bezala naski. Al-ta oraingoan segurtamenak banituen. Ordea ez nin-tzen ozenki mintzatzen ahal. Ixilik egotea ote zen barneko sakontasunaren prezio garratza ?

Sekulan atzera sogin gabe lasterka banindoan. Laster, lasterka. Mortuan pistarik ez zagon, baina ez nintzen galtzen. Bi egun berantago hiriko burdi-nezko ate pizuak ikusi nituen. Jo nuen, eta emazte oihaltzu batek ireki zidan :

– mortutik nator...

– zoroa zara, ez da inor mortutik heldu. Mor-tuan dabiltzanak sableak bereganatzen ditu, eta jainkoek ere ez dakite zer bilakatzen diren han zen-duen hezurak !

– egia da, mortutik nator, eta ibai zabalaren hegian agure batekin solastatu naiz...

Horiek aditzean, atek hetsi zizkidan. Alta, lehenago ez bezala, egia nerrasan, eta zintzoa nin-tzen. Jo eta jo segitu nuen ; gaua jautsi zelarik, nere bakartasunean hila, zeru argitsuan ilargiak zegidan irriari ihardetsi nion. Bakarrik, baina zoriontsu...

Urteak eta urteak pasa zaitezkeen, ez nuen gehiago deusetaz axolarik, deusek ez ninduen munduari lotzen. Deusek. Lurreko bizidunek, egia baino, komedia nahiago zuten. Nik ere azkenean, gauzak, ekintzak errezagoak eta jendeekilako harre-manak hurbilagoak baitziruditen. Normaltasun ba-ten eskuratzeko, gogoak baketzeko gure usteak eta gure sinesteak auzoen arabekoak behar geni-tuen...

Ez nuen gehiago deusetaz axolarik. Agure hu-rra mortuan topatu nuenetik komedia/one woman show berezi bat ematen nuelakoan, tauladarik eta ikuslierrik gabe. Nehork ez ninduen txalotzen, hux-tukatzen, nolako ezazolkeria ! Bidea utziz geroztik, xendraz-xendra banindoan, bihotzeko manu min-garriekin teman, mailu batekin gerillero denak pus-katu arte... Ez naukan ezpazioaren eta denboraren ideiarik. Neurrietarik kanpo nintzen. Ez nakien noiz hartu nuen Baionan treina, zergatik eta nor zen Auzterlitzen zain ukanen nukkeen nere maitea ! Axolarik ez. Orduan pentsatu nuen, nik ez banuen munduaren beharrik, munduak berdinki, ez zuela nere beharrik. Hiri hertsiazen burdinezko atean etzan nintzen, eta azken ordua idurikatu nuen. Lasai...

# the west...



Noizbait, ateak irekiko zituztelarik, nere hezurrak aurkituko zituzten eta damutuko zitzairen, ez baita norbait laguntzarik gabe, gosez eta egarriz hiltzea uzten. Erranen zuten, halatan, haien arteko iraultzalari bat nindaikela, harri-tailu bat eraikiko zidaten, marmolean «requiem» idatziz, eta munduko jakintsun handienek komentaturik nere obra osoa argitaratuko zuten...

Hil nintzen beraz gosez eta egarriz.

Hil ninduten.

Hil...

# ...is THE BEST!

Bigarren aldikoz iratzartu nintzenez, goiza zen eta etxean nindagon, ohean mihise gozoetan etzana. Ohartu nintzen medikua hor zagoa, bizpahiru erizainekin. Ni eri? Ez nuen nehoiz eritasun gaixtorik ukan... Eri ni... Medikua beharri- ra mintzatu zitzaidan: «Odol asko galdu duzu... Badu bi hilabete koman zaudela...». Nion eskatu: «Zer gertatu zait?» «Baionatik Parisera zoan treina desbideratu zen, eta berrogei ta zazpi hil kondatu ziren. Zu lore bat bezala bizirik gelditu zara, eta esperantzaren perfusioekin bizirik atxiki zaitugu...» Nekatuegi nintzen hizketan segitzeko. Xurxuriz altxatu liburutegira sogin nuen. Dante, Biblia, Prevert, Breyttenbach, Axular, Zola eta Machado hor zauden nere zain, Txillardegiaren gramatikak eta Gartziamarkezen «Ehun urte bakartasun» delakoa. Gehienik gustatzen zitzaizkidanak oro. Lokartu nintzen...

Begiak berriz ireki nituenean gaua zen, eta gizon-emazte eter usantsuak joanak ziren. Ohe ondoko muble gainean iranjan borrotilak baziren. Nituen indar ahulekin, bati azala kendu nion, eta ixter bat jan nuen. Iranjaren gostua! Agureak: «Ilargia maita ezazu, harek maite zaituen eran!» Ganbarako leihoa zabaldu nuen, ilargiari irri bat zuzentzeko. Han zagon ilargia, tente potente, itxuraz zoriontsu...

Pentsatzen hasi nintzen. Zutik. Dena ametsa ote zen? Agureakilako solasak, nere gosez eta egarriz hiltzea... Dena ametsa, koman nintzelarik egin ametsa. Ez nezakeen sinets. Ibaia, mortua, zintzotasuna, sakontasuna, gelditasuna, agurea, hiri, heriotza. Biharamonean argi zirrinta batek berotu zuen nere gela. Belea, beltzak, elge irauli berrian kroakroaka bazabiltzan zizare eta marmuxka. Medikua, beren tresna hotzekin etorri ziren, eta elgarri «Salbatu dugu» zioten.

Nik ametsa egiarekin batu nahi nuen...

Eguerditan, salda lodi batekin bazetorrela amaren arpegia ezagutu nuen. Mirakulu bat zela zion, otoitz egin zuela eta herriko apezari Jainkoak bizirik atxik nindezan meza ixil bat manatu. Denbora batez nere aitamak hastiro nituela gogoratu zitzaidan. Orain ez nuen, ordea, hirarik. Denak barkatzeko gai nintzen.

Hortik harat, egunero, leihoratzen nintzen, kanpoak eta bazterrak sutan ikusteko, haize hegoaren bufadak matel mehatuetan zartakoak bezala hartzeko, eletrika hariaren gainean pausatu ainara multxoen kondatzeko. Emeki emeki, zutik nindagokenean, karrikan behera abiatu nintzen, UHANE ibairaino, zubipe hartaraino, han larrazkeneko uraren murmurioaz betetzeko... Iragan guziaren orroimenak galduak nituen, eta punduz-pundu denak neretu behar nituen. Euri zegien arratsaldeetan, liburu batean kartzelatu argazkieri beha egoten nintzen... Bahakien, segurtamenekin, noizbait iragan bat ukan nuela!

Halere mixterio bat bazen: liburutegiko tauletan gizon baten fotoa bazagon, bere handitasunean irriz ari zela, geltoki batetako kaiertzean hartua. Ez nezakeen aurki, nor izaten ahal zen, behintzat non kurutzatu nuen, edo nola. Ezer. Alta, nere bizitzan noizbait asko kontatu zuela ziruditan...

Medikua astean behin heldu zen. Pikura bat zegidan, eta berriak eskatzen zizkidan. Ibaiaz, mortuaz, agureaz, hiri hertsiaz, nere heriotzaz mintzaten nintzaion. Irri aire batekin, eskutatzen ninduen. Finitzeko beti erraten zuen: «Arren, dena ametsa da. Ahantzi behar duzu!» Negarrez nerrasan: «Ahantzia dut jadanik. Dena ametsa da...». Eta bazoan bere sinestetan azkarturik. Ez zuen deusik konprenitzen, ibilaldi bitxi bat negiela, zintzotasuna, sakontasuna eta gelditasuna aurkitu nituela. Harek: «Dena ametsa da!».

Etxean mahatsa bildu zuten, eta ardo minkara jastatzera eman zidaten. Ai ardo berriaren saporea! Basoak gaindikan edaten nuen ardo hortarik, bihotzean orroitzapenak berpizteko. Banan bana, guziak, jeikitzen ari ziren: festak, manifestaldiak, ixtudiak, idatzi nituenak... Eta argazkiko gizonaz? Ezer... Artoa ere sartu zuten kribetan. Gogoratu zitzaidan orduan arto landa batean, haritzen maldan ipularrean, argazkiko gizon harekin goxo-goxo ibili nintzela, haren zakila gogortua arto buru emankor bat konparatuz, eta nitan hedatu zuen ur guri beroa arto zango bati ebatsi hosto batekin garbituz... Ez nintzen segur halere. Behar bada hau ere ametsa zen...

Arrats batez, Parisetik norbaitek telefonaz deitu ninduen. Bere kaiolan bihotzaren pilpirak senditzen nituen. Hura. Argazkiko gizona. Bai. Hura zen bai. Telefona eskuan natxikaneke haren boza ezagutu nuen, eta agur erran orduko guziaz orroitu nintzen. Treina, Baiona, Auzterlitz, Parise: dena, nerea. «Hilen artetik piztuaren abotsa daukazu!» zion, ala ez zakien zer gertatu zen bidean. «Badu horrenbeste denbora... Uste nuen ahantzia ninduzula. Zergatik ez didazu telefonatu ez zinela heldu errateko, zure arrazoen azaltzeko. Kaiertzean zure zain egon naiz, eta mila orduz deusik ez... Esplikazioak behar ditut». Harek ez zakien. Treinaren desbideratzea, ixtripua, koma... Pena nuen haren arpegi zoragarria (neretzat) trixte asmatzen nuelarik. Ez nion minik egin nahi... Nik ere maite nuela ihardetsi nion, bizi osoan harekin gelditzeko xedea naukala, haurrak sortuko nizkiola, zintzotasuna eskuratu nuela eta berriro treina hartzekotan nintzela bereganatzeko...

Bai zintzotasuna, sakontasuna, agurea, hiri hertsia.

Argazkiko gizon hura nere maitetxea zen...

...plIST-PLaSSSTtt!!!  
 Ijii  
 t'sst  
 plast

## MAYI PELOT

1987

Katrylek Deunargitik Xuripira ihes egin zuen goizean, iguzki urdunetan diz diz eta zipli zapla zegoen espazioportu-aintzira. Mutilaren begi iguzki urdinek, begi-zilo beltzetan sukarrak fir fir, eramaiten zuen zubi lerrakorretik hiriko etxe urdinak, azuritezko ezpondetan zilatuak, somatu zituztela, sudurrera igan zitzaion urbidetako usain sarkorra - ezki lore gazituena. Katrylek gibelean zituen jandak, espazioportuko kaian harat eta hunat ttuku ttuku zebiltzaten roboguardiak, soineko berezi gorriez jantzirik, bakotxaren bekokiko ximur fina, hirugarren begi eletronika, zirt zart idekitzen eta hesiten.

«Haiek nere potreta balute, aspaldi harrapatuko ninduten... Garondoko zenbaki larrantzatua fitxik erran gabe ikertu didate... uraireko pribatu batetik jautsi nintzelakotz behar ba...»

Batbatean txoratu egin zen Katrylen gorputz mindua... txoratu ez, haren oinenpean egiazki ikaratu baitzen Turioi planetako lur epela.

«Richter 2koa, nik uste ; gaurko lehenà» berreuseraz erran zion ondoan zuen gizon xaharrak. «Guk Xuripitarrek lur ikara ttiki bezainbat diru bagenu hobe... Ba ! Herri bakotxak bere arazoak... «Gizonak HITZ egin ziolakotz harrituta, Katryl, ez entzunarena egin arren, bazter so batez bestea gizon kalakaria besterik ez zela segurtatu zen. «Ez. Bekokian ximur xutikakorik ez. Hau ezin da robopola izan, xaharra delakotz ttuku ttuku ibiltzen da. Nik ez dut paranoiara erori behar. Hemen ere Ekuador aldean, Berreusen, herritarren artean biziko naiz. Basik eta Kobol planetakoek baduela zortzi mende hunat, Rurioi planetara lurreratu eta Ekuador aldea —Berreus gure herria— zatikatuz planetako alderdi bana hartu bazuten ere bai !»

Egia erran, espazioportua arrotzez betea zen eta nihork ez zion kasurik emaiten : denak, ixilik, mikromañetoiak belarrietan, gidatzeko ala lanerako kasetak entzuten ari ziren, non Katryl, belarri hutsik zelakotz, errexi hauteman zuen haren zai zegoen lagunak.

Anartean, Deunargiko bulego ixil batean, terminaleko bantailan ageri zen fitxa :

IZENA :	Jonle Ondor A odoltaldekoa Rh-
1m 80	Ile beltzak Begi : iguzki urdinak
Marka bereziak :	0
Deunargin	3505 10 12an sortua 23 urtekoa
Familia :	Aita 44gn Zentro Medikopolirikan 3 urte ezin sendaturik egon eta 3520 03 08an hila
Anaia «Aire»	mikromizila lantegiaren kontrako ekintzan 3525an tirokatua.
Oharrak :	3528an 9 egun 41gn Zentro Mediko- politikan egona
Kondenatua :	ez
MARKATUA :	bai, liluralez
Berreusduna :	bai
Kaltegarri gai :	bai

aaaaaaaah!

Xuripin, aintzirako kaiari, hogoi bat urteko mutitiki beltzaranak, Katrylen gana laister egin eta, sorbaldatik ixilki hartu zuenena, Katrylek irriño goxo herabe bat eskaini zion. «Kaixo Azir !» Azirek ezpada urdin leiho-atez xilokatuak eskuz erakutsi zizkion : «Bizilekua hor duk. Iber urbidearen gainean. Goazen txalupara !»

Plist plast untzira jaustean oinaze zimiko batek Katryli aurpegia makurtu zion.

«Katryl... erradioez ote ?»

- Bai.

- Bizilekua goian duk... Bai, bazekiat. Igaitea gogorra izanen zaik... Lagun batek mikroirringa bat epen eman digu. Nik artatuko haut.»

Katrylek buruz baieztu. Ez batek ez besteak ez zuen Katrylek jasan zuena gehiago aipatu. Aintziratik urbidetan gaindi zeraman hyper-latexeko untziaren klunkak, ureko lohium usainak, talapastak, jendearen bozek Katryl xoratzen eta kulunkatzen zuten, haren baitan Xuripi bere ihesleku hiri hortara itsaso ttiki bero batera bezala plist plast pulunpatzeko gogo sorreraziz.

Katrylek lana atxeman zuen egunean, Xuripi bere ihes lekua zokomokoetaraino ikertu zuen jandak. Xuripik gogotik eskaini zizkion bere urbidetako ileak untziez orraztatuak, bere harpeko etxe urdinak, iguzkia baino urdinagoak, ate leiho biribilez zilokatuak, eta bere ezki lore gazi usain sarkor hori. Gau hartan, Xuripik gauera bezala urzalapasta —hasieran izitu zuen txakur urrats malgu hartaz— kulunkatu zuen, Iber urbideko beste bost mutilekin bizi zen bizitegi ilun epel hartan.

Xuripik goiz guziz bezala merkatuko edo merkaturako hetsez goizik iratzarri zuen, untzietako erreakteren hasperenak, jendearen oihu eta kanturak eta haren lagun Aziren marmarrak nahas mahas belarrietara heldu baitziztaizkion :

Plast ! plist ! «Eskuin ! Nola da zuen alabaxoa ?» Plast ! «Pentsa ! Gau guzia hortzengatik nigar egin din eta...» «Kaiara itzuli eta... 5 3 3 3 3 lailala...» Palast ! «Kasu ! Karramarrora ari zaizte!»

«Hiri madarikatua ! Begirik itazkatzen ari zen, besapean lauki informatiko perdea (Galaxien arteko iheslarien marka ofiziala) agereraiz.

Kanpotik beti merkatuko harramantza : «To ! Angura, hunat, plaka mañetikoa hemen duk!... Kaixo Luxi ! Aspaldi...» Palast. Krrraurrr ! «Ezin huen kasurik eman, asto hori ! Azpa polliki perekatu didak ! Untziari izerdia dario !» Hau ! Hau ! «Lasai, Bipil. Zangoa emak...eee ?»

Dil dil. Kilixtikitiklik.

«Ooi ! Berriz ere lur ikara zikin hoietarik ! Richter 4koa daiteke !»

- Ez, Azir... 10koa gutienez

- Katryl, begirak pixkat, trufatu orde ! Nora lerratu zait bizarnabal hori ?

- Azir ! ez al duk oraino ulertu bizarrik gabe ERE ezin itsusiagoa haizela ? To hemen duk.»

Kaltzitararen ezkil soinu eztiak ixilerazi zituen : norbaitek ateko itsas zaldi zizelkatua jo zuen. Lor idekitzera polliki joatean, Katryl leiho borobila bultzatu eta zabaltzera iragan zen. Alferrikako beldurra, bisitalaria —Mik «Telepata»— berreusduna baitzuten, eta auzoa, gainera. «Katryl, erdi lan bat bilatzen ari zarela erran didate. Nere ostatuan lan egin nahi duzua ?»

- Bai, gogotik ; Deltarako aireontzian sartu nahi badut, dirua bildu behar !» Azir kexu zen. «Hobe duk. Arl eta Kepi gertatu zaiena badakik, e ?»

Katrylek sobera ezagutzen zituen bai, Xuripi zelata usaintsu hori, gorde ala erahil lekuak zitezketen urbide arteko karrika labur hertsia, hango horma zaharrak, lohium gatzeko nigar gogortuez beteak. Ezagutzen zuen bai, Basikeko robopol espioiek Arl gaztea mikrorratzez hil zuten karrika, handik pasatzean ikusten baitzuten haren izena, hidrogelifa beltzez idatzia, sumendi botakin ihiztatuz lur epelean betikotz berinatua. Bai eta ere Kep bere lagunaren untziska zarterazi zuten Obero kaiako karramarro belztu berinatua. Hidrogelifa miresgarri haiek... Turioi planetako hitz idatzi bakarrak, Kobil eta Basikarrek zenbaki eta gurutzez besterik ez baitzuten idazten. Hidrogelifak... hatza ezin kenduak. «Neri ere Basikeko robopolek hunaraino jarraiki balin badidate... Izigarria da, hil eta ere hatzak utzi behar ! Hobe nuke Deltara lehen bai lehen airatzea.

Deunargiko bulego ixil batean, atzol urdina hunkitu zuen telidazkariak, Jonle Ondoren fitxan izar gorria marratzeko. Katryl, Deunargitik, Basiketiki ixilki joan zela seinale.

Katrylek gizon burusoila nabaritu zuen egunean, Urbide Handiko zubi-lorategian zegoen. Gizona, jeroihaxuriz jantzia, espantilla-belarretako hari izurtsuen artetik hauteman eta, bestea ttuku ttuku ondotik zebilela iduritu zitzaion. Mutila kaiara, eskuinera batbatean jo zuen ; bestea ttuku ttuku beti bere ondotik. Katryl litxiardo denda batera sartu zen ; une baten buruan, ateratu zenean, bestea ez ageri... baietz, han zegoen, untzizka baten ondoan, makurtua, norbaiten zai iduri. Katrylek lur ikara ezti bat —Richter 2koa gehienez— doi doa senditu zuen. Gizon burusoila erortzera egin eta kaiara erori. Katryl ondoko etxera sartu, eskailera igan, etxez tronpatu zela ohartu ; itzultzeko berantegi. Mutilak laugarren estaian lagun baten atea ezagutu, eta erdiko kalzitazko itsazaldia polliki jo.

«Kaixo Katryl ! Zer gert...»

- Utz nazak pasatzera ; ez nauk ikusi, e ?

- Hemendik.» (Xuripin, laugarren estaietan ziren «zabaltzak», hobeki erran balkoiak edo azuritan zilatuak.) Katryl leihora laister egin eta gero zabaltzatik zabaltzara, Xuripiko haur guziak ttiki ttikitik ohi diren bezala, bere bizilekuko leihora joan zen , leiho borobila erhi trbesaz polliki karrakatu, Azirek ideki arte : «Atxeman haute ala zer ?»

Biek behega behatu zuten : kaiari gizon burusoil bat ttuku ttuku urruntzen ari zen... Haren bekokian, ximur fin bat : robopolen «3gn begia», fototresna ala harma zitekeen xiloa. «Katryl, robopol batek Raf bere etxearen aintzinean goizean hil dik. Etxez aldatu behar haiz !»

«Lasai. Galdu nau. Ostatura itzuli behar diat. Atxemaiten balin banau, nere burua defendituko diat. Izitu nahi gaituzte, dena onhar dezagun, Berreus gure herria utz dezagun, gure sumendietako kemena mikromiziletan alferrik zartaerazteko. Berreus gure herria nahi diate, Koboldarrek mikromizigeltoko alimale bat eraikitzeko, Basikarrek sumendietako kemena mikromizilen lantegietan xahutzeko. Kalakez aski. Gero arte !»

Pasagitik iragaitean, Katrylek bere sudur ahoaren gainean jastatu zuen haizeran gorputz epela, ezki gazituaren usaina zuen gorputz ikusgaitza. Xuripiren izana.

Katryl nor zen igarri zuten gauean, Xuripiko euri epelaren oin arinek urbidetako palasta farrastan hedatzen zuten. «Jos» ostatuan zegoen Katryl, lagunaren erdian, Basikeko lendakariaren buru higitze urduriak eta erranaldi birilikatuak imitatzen (isekatzen) ari :

«Ulertu bai, ulertu behar lukete Ekuadortar, Berreustar direlako atzerakoi kalakari haiek, berentzat zer ona den : eskaintzen dieguna, hots, hitzez mintzatuz astia galdu orde, hitzak politika –gizoneri uztea, gure 200 keinu– soinuuzko kodigoari esker mezuak paserazte, basikerazko kaseten entzunez lan egitea, Berreus bazterrera utziz lana kanpoan atxemaitea. Guk zentralak altxatuz ur beroa ekarriko diegu. (Katrylek burua higitu zuen). Bai, badakit, zentralik gabe ere Berreustarrek beren uretako lohiuma, minaurkakoa eta gaizkondura aurkakoa izanez gero, Turioitarrei sal liezaieketela, baina beste planetetako sendagailuak karioagoak izanikan ere, ezin ditugu haiekiko tratuak hautsi ! Merkatu-arazoa da hau !»

Irri karkailek Katrylen boza ito zuten. Harek burua artza xuriaren gisan higitu zuen.

«Bihotza, bai, planeta huntako bihotza bilaka liteke Berreus hori. Sumendi botakinezko mugaz bestaldean, Koboldarrek beren laguntza eskaintzean nola uko egin ? Haiek, daukaten Berreusko aldean mikromizilen geltoki bat altxatu nahi dute. Hortarako dena egiten ari dira : langabezia sorrerazteko lantegiak Berreusetik kanpoan plantatzen dituzte. Zertarako hori ? Hori zertarako ? (Daldalaz mintzo zen Katryl.) Planeta batzu jadanik kiskaldu dituen galaxien arteko gerla pollit batek Berreuseraino, hots Turioi gure planetaraino etor dadin ! Azkenean suntsituak izaiteko eskubi-dea lortuko dugu ! Hori baita nere –barka– Turioiko herri nausien lehia. Galaxi arteko legeen arauera, ezin ditugu Berreustarrak kanpora bota, ez eta egitura militarrik Berreusen planta, 5 milioi bizilagun baino gehiago Berreusen bizi den artean. Legea errespetatzen dugu, ez dugu falta, mizila lantegi bat gordeka eraikitzen denean, eta gure gobernuak hartaz berantegi ohartzen denean. Haiek dute falta, lantegietara sumendi botakina, subideak gauaz bihurtzen dituzten Berreustar gogonekedun edo psikopata haiek ! Haiek ari dira legetik kanpo ! Horregatik, harrapatzen ditugunak Zentro Medikopolitikoetara igortzen ditugu, haiek berheziketari esker beren haurkeriak utzi eta Basikar zintzo eta ixilak bilaka daitezen, ala kalte gehiagorik ez dezaten egin bederen...»

Katryl, begiak diz diz, erraiten ari zenaz Moskortuta, ateari buruz gibelka ohargabeki ari zela, norbait sorbaldez jo zuen. Ate idekitik haize euri-tsu epelak matela bustitu zion. Urbidean euri xortak urruntzen ari ziren ttuku ttuku.

«Barka...» Katrylek ostatuan jadanik nabaritu zuen neska atarian zegoen. Sare dirdiratsu berdezko galtzatorra batez jantzia. Beltxarana zen, handia ; gorputza, kirolariarena. Haren begi beltzak irrizko nigarrez beteak ziren. Bazihoan halere... zertarako ? Katrylek bekoki beltzatuari herabeki so egin zion, ximur xutikako baten beldurrez... leun leuna zuen bekokia. Egiazko emakumea zela, ez robota-fotografara, segur zen orai. Neskak, Katrylen soa somatuz eta haren aieruak asmatuz, hasarrez gorritua ondoan zuen alkian jarri eta mutilaren besoari Galaxiko iheslarien markaren bila agertuki

so egin zion... Alferrik: Lauki berde larrantaturik ez, Katrylek ez baitzuen hatzarik onhartu nahi. Haien begiek elkar topatu zituzten. Katrylek bekokitik ileak altxatuz itsaszaldia, Berreusko gizonen ohizko larrantza, erakutsi zion, eta lotsak neskari zintzurra korapilatu zion. «Gaixoa ! hunat ihes egin du eta ni muturra egiten ari...»

Mik, «Telepata», ostatuko jabea, bere dohainari esker Katrylen gogoan duda/gutizia eta neskarenean lotsa/urrikaria irakurri zituelakotz, gibeletik hurbildu zitzaien. Gogoetak bildu zituen. Deunargitar gaztearen gogoan zera izan zen : barbeko irriñoa, bi giza silueta buruz buru, eskuak mordoka zabalik : neska ezin zela kaltegarria izan. Mik «Agur, Zerune !» erranez tulara itoltzean, neskak zerbait erran behar zuela ulertu. Biek batera elkarri hitz egin zioten : «Irri eginerazi nauzu/Ezin al zara luzekiago egon ?» Katrylen hasarrea berehala urtu eta lagunek ongi ezagutzen zuten irriño argitsua zabaldu. «Baietz». Neskak, Katrylen irriño goxoari jadanik amore eman zion ; lagunek Katrylen hitzaldiari txaloka ari zitzaizkiolarik, litxiardo baso bat onhartu zuen. Batbatean, lur ikara arin batek Zerune eta Katrylek aintzinean zituzten basoak lerrerazi zituen. Mutilaren eskuak haiek harrapatu nahian, Zerunerena hunkitu zuen. Richter 3etan.

Mutilak «ni Katryl naiz» zioen bitartean, Deunargian, 321gn zirkuitak 430 robopolari lotu zitzaion :

321	430
Ondor Jonle 1m80 ile beltzak begi iguzki urdinak 250510an Deunargin sortua ihes egina kaltegarri gai	Katryl deritzana 1m80 ile beltzak begi iguzki urdinak 22 bat urtekoa berriki etorria etxe ofizialik ez
liluralez markatua	

Deunargiko argazkiak (Katryl, bizarduna) Xuripiko potretari (Katryl, bizarrik gabe) zirkuitoetan gaindi ihardetsi zion, bantailan esarera bat klixketan agererazi arte :

KATRYL = JONGLE ONDOR

## PLiist PLAssst

Katryl Zeruneraren ohean iratzarri zen egunsentian, Xuripiri bere izena eman zion Xuribe auzo xahar hartan, zeru perdearen pean lo zeuden aintzin denborako sorgin kebede xuriak –lemazainen etxe ohiak. Zerunek Katrylekin bakean topo egiteko asmoz itsas bazterrreko dorre natural haletatik batean bizileku bat alokairuz berriki hartu zuen. Leiho borobil idekitik heldu zitzaien uhain epelen hasperen ezitia, bai eta ere noiztenka beste soinu mehe bat, urbide urrutiko talapasta behar ba.

Katryl, begiak hetsirik, izerdiz betea, intzirika, atxikitzen zuten besoetatik libratu nahiz zalapartaka luzaz egon zen, «Pat, Pat, itoko naute» etengabe errepikatuz. Mintzo zitzaion emazte boz amul-

tsua azkenean entzun zuen : «Katrÿl, maitetxo ! Esna ! Ni nauk, Zerune nauk...» Katrÿl, izena eza-gutu gabe, bere gorputz biluziaren kontra beste gorputza beroa somatuz lasaitu zen.

«Nun da Pat ?»

- Pat ? Nork duk, Katrÿl ?»

Txoradura. Leize leizera erortzen ari zen Katrÿl. Ez, leizerik ez, hau inguma dut, begiak ideki behar, eta ezin, itoa naiz, itotzen ari naute, ez dut Begiak nekez ideki zituen, Ekuadoreko gau beroan hotzikaraz. Norbaitek —nork ?— mihiseaz kokotxe-raino estali zuen.

Haren begi urdin nahasiek aurpegi kexua haut-eman zuten : «Zerune ?»

- Katrÿl...a ! Azkenean ezagutzen nauk. Nola haiz, neretxo ?

- Gaiz..ki...hotz...»

Zerunek, izerdia baldokietatik zeriola ohartu eta eztiaren bila laister egin zuen, sukaldetik pasa-tzean sumendi botakin dutxulua ideki eta ardi-huntz esne gatilu bat berogailuaren gainean ezarri zuen. «Zerune ? Nun haiz ?»

Katrÿl hil hotza bezain xuria zen. «Azukrea odolean falta zaiala iduri... Beldurra eman didak. Aments izigarrietan hengoan...» Katrÿlen eskuak Zeruneri ukarea harrapatu zion : «Hori dun... lilu-ral zikin hori xirringatu zidaten... Ai... txorutzen naiz... ez deitu nihori !»

Zerunek zalixka betea ezpainetara eraman zion : «To hemen duk itsasbelar ezti pixkat. Ahoa ideki !» Katrÿlek nekez irentsi zuen. «Gehiago jan behar duk». Bekokia perekatu zion. «Sukaldera nihoak. Pausa hadi !»

Katrÿlek ixil ixilik igurikatu zuen. Baina Zerunek jarrerazi nahiz besoez altxatu zuenean, zinkurinaka makurtu egin eta galtzarrean etzan zen, ahurrak sabel beheara eramanik. «Atx... aspal-di... Zerune, lohium sulfata... laister...»

Zerunek miñaurkakoa edo antalgikoa pixtola eletronikara ixuri zuen. Mikroxirringako orratz ttikiak bere sabelari hurbiltzen ikusiz nahigabeki gibelera egin zuen Katrÿlek.

«Lasai... ingumengatik giharreak gogortu zaizkik. Zertaz jo hinduten ?»

- Erradio bulkagarriez... noraino joan zitezkeen eskanneraz frogatuz. «—Prest?—» Bai, ez beldur ; geldia egonen naun.»

Ordu laurden baten buruan, Katrÿlek, arrain-ondo osto batzu eta ardi-huntz esne gatilu bat gosearen gosez irentsi eta, garondoa Zeruneren besoan ezarri zuen aharrosinka.

- Logale ?

- Liluralarengatik loaren beldur oraino.

- Lilural hori, zer duk ?

- Koboleko robopolek, harrapatu dituzten Berreustarrak hobendatu ezinean, besteak izi-tzeko liluralez xertatzen ditinate. Lilural hori Lur planetatik etorri omen dun. Han garbitze irina huen. Haur batzuek itxripuz jan eta zera atxeman zinatzen medikuek ; jendeari azukrea odolean gu-titzen zaienean, —hots, hipoglizemian— jendea barurik izaiten denean bereziki, lilurala oniro-tropa edo amentseragilea bilakatzen dela.»

- Ingumaeragilea bai... Behar ba oroitzapen faltsuak gogoan hipnosiez sartuz Jos eta Barbi bezala «antolatuz» hinduten... Aipatu huen Pat hori... «-Bdaiteke.» Zerunek Pati buruz galderarik behar ez zela ulertu zuen.

Katrÿl nihoiz ez zelakotz zinkurinatsua izan, bera Zerune konsolatzerara entseatu zen : «Miñal-dia bukatua zait orai... milesker... ez tristea izan... Kasu eginez, behar denean janez, ez dinat miñal-dirik ukanen. Aspaldi ez ninan amentsgaitzik ja-san. Nere falta dun.»

- Ez, gaixoa.

- Baietz, Barda berant etorri naun, egun guzia eskuin eta ezker ttarapataka laister egin, ogitar-teko xume bat irensteko astia doi doa atxeman.

- Eta ezin hidan janaririk galdatu ?

- Beranta huen... ez nindunan gose... nahi hin-dudan... azken aste hauetan ezin elkar ikusi eta...» Zeruneri bazter so urdin bat botatu zion : «Zer-une... erran nahi ninan... Ez naun Deltara joanen. Hemen, Xuripin bizi nahiago dinat». Begiak hetsi zituen. «Musu bat...»

Eta Katrÿlek lokartzean ez zekien gehiago, Zeruneren musu amultsuak eta Xuripiko euri xor-ta epelak aurpegira erortzen ari zitzaizkionez.

Xuripin, Urbide Handiko kaian, gizon burusoil bat, jeroihal xuriz jauntzia, nora ezean hara eta hu-nat ttuku ttuku zebilen ; haren bekokia idekitzen eta hesten zela ximur xutikakoa, hirugarren begi-kamera eletronika. Deunargian, bi idazlariek ha-sarrez elkarri so egin zioten : «Lur ikarak robopol madarikatu horri zirkuitu batzu erre bide dizkio. Harek gure gizonaren hatzak galdu ditu !»

## ATX....

Katrÿl Xuripiko ur-kiroletan xapelduna bilaka-tu zen arratsaldean, sukar alai bat hiriko urbide gorrixketan gaindi zebilen di dil. Ezponda urdine-tako leiho borobiletatik xingola zilharreztatuak zintzilik haizean dantzatzen ari ziren. Katrÿl bere lagun xuripitarrekin arropategitik irri-karkailaz ate-ratu zenean, ekipakide bat kaian zegoen Zeruneri hurbil du zitzaion.

«Hi ekipan, Kol ? Hire lagunak urrikari ditiat !»

- Eta ez dun ezagutzen gure zorigaitzatarik dor-peena. Huna, harek Katrÿl du izena. Katrÿl ? Nere lehenkusia, Zerune.»

Katrÿl «pozten naiz» zioen bitartean, Zerune, atsegin zitziolakotz ez ezagunaren komedia ttiki hori, begiak irriz hari so egon zen.

- Nungoa ? Zu ez zara Xuripitarra, ezta ?

- Askotan etortzen zaren «Jos» ostatuan naba-ritu ninduzula itxaro nuen... badakit itsusia naizela, baina... nungoa ? Deunargiarra.

- Kol ! Katrÿl ! Neskak noiztenka utzi !

Zerunek Koli musu bat eman zionean, Katrÿlek nigarrez denarena egin zion. Gero, mutilak dena batbatean somatu zuen : bere matelan Zeruneren ezpain epelak, bekokiaren barnean hutsunea, oin-enpean lurra klunka, ura plist plast, ukarean bere maitearen erhi xifrituak ; haren boza :

«O! ene ! Ur kirolak baino lehen hobe ! Hau Richter 4koa gutienez.

Ongi, Katrÿl ? Deunargin ez duzue holako lur-ikararik senditzen.»

Katrÿlengan bihotzeko ziztada zera izan zen : itsa-so zabal ubela, bi menditxo larros kolorekoen ar-tean portu ttikia, etxetako paldo zehargi urdinak, ttirritta-gorbelen kantua itsas-apalean... uharte-ostatu mugikorrak... ez... gogortu egin ziren mu-tilaren begi urdinak. Zozoentzat, urrikiak ! Itsas-zaldia zirudien hyperlatxezko kayakera laister egin

zuen, bere zangar ginartsu beroez, bere gorputz gazte gotorraz arre artoa. Kayaken barnera lerratu eta eskunarru-arrauak sorbaldetaraino jantzi zituen. Zilinduz dei egiten zioten jadanik, urbideko ur usaintsu gorrixkak, untziska beltz zaluak. Eta ur-eko bide ihezkorretan gaindi dantzatu zen Katryl, bide hatza gabekoetatik harri-geldozko pilota guziak bilduz, uzkailli gabe, kayakeko hyperlatexa zauritu gabe makurtuz eta makurtuz, irabazi arte airatuz.

Basaltazko zubitik, Urbide Handiko kaiara ttuku ttuku jautsi zen gizon burusoilaren bekokian, zimur mehe bat zabaldu, hirugarren begi eletronika ideki, kamerako diafragma ximixt beltz batez klixkaeraziz.

Katryl ostatuan bakarrik egon zen arratsean, zerua berde berdea zen jadanik. Karrikako kaiola-argixumeetan, doi bat distiratzan hasi ziren Turioiko argi biziak, ipurtargi horiak, haurtxo buruak bezain handiak. Katrylek, Lor eta Azir atalondoraino -ur hegiraino— lagundu eta etxeko ipurtagiaren kantu ito berezia aditzeko itsasbela pixkat eman zion. Xistu entzunagaitzei Katrylen oinpean ihardesten zien urak lapa lapa. Mutilak hatsartean, bularretako azken zokoraino igan zitzaion aire zapora biziduna, Deunargiko sumendietatik haizeak ekarria. Ur zimurtuaren firfirarekin batera igan zitzaizkion gazte batzuen irriak; eskuz agurtu zituen.

«Gora gure Katryl! Xuripitar xaharrek bezain aise sumendietako haizea irtzintzik gabe irensten!»

Ez zekien mutil gazteak, bere agurrak Katryl salatu zuenik. Ez zuen hauteman Katryl irrikoiaké urbidearen erdian gelditua zen untziska, erreakorak ufaka. Ostatuara itzultzean bakarrik, gibelera begiratuz ezagutu zuen untziska batetik bestera ttuku ttuku iragaiten ari zen gizon burusoilaren ximur xutikakoa. Eskua gerrira eraman zuen artean, mikrorratze berzartakorrak buruan eta sabelean zituen jadanik.

Mik, ostatuko jabe telepata, etxeko zabaltza batean zegoen ukondokatua, haize freskoa jastazten ari. Haren gogoan zera izan zen: urean islada ximixt hortzadar errea, miñaren izarra, gogo baten orroa... Hurbildik zetorren. Etxetik. Bere ezer-ezerako dohain xumea madarikatuz zalukara jautsi zen. Behean, ostatuan, Katryli agur erran ziotenak lurrera so zeuden, ikusfonatzen ari zen Azir salbu. Han zetzan Katryl, kopeta odoletan, haur begi harrituak, iguzkia bezain urdinak, zabalduz, ezpainen xurituaz «Pat, Pat» etengabe ahoskatzen. Nihork ez zekien Pat haren berri, eta emaztea, gizona, kodigoa ala robopolek emanikako oroitzapen faltsua zenez. Katryl konorte gaberik eraman zutenean, robopol burusoila Deunargirako urairekoan jarria zen.

**A&E 1°**

Zerune eritegira etorri zen egunean, Katryl lau egun haietan ez zela esnatu ez eta mugitu, hiru elektroenzefalo apal (hits) ateratu zitzaizkiola, —hots, hilgai zela— erran zion medikuak. «Zer na'uzu! Ezin dugu hil!» ohizko hitzak entzunez, neskak, logelara sartu baino lehen «milesker, jauna» bere baitako gorrotoa doi doia gaudituz ihardetsi zion. Sendagilea urruntzean «sastarra» marmarikatzen ari zelarik, «ixilik» ahapeka erran zion Katrylen logelatik ateratu zen erizain mehe ilegorriak. Harek eskuan zuen tresna (frogeta okil antzeko bat, baina metalezko buru batekin) sakelara sartu aintzin erakutsi zion. «Zerune? Kitto!» Xamar eta buneta xuriak zalu kendu eta Zeruneri zakura nola nahi sartu zizkion. «Banihoan; hobe! Hemengo egiazko erizain batek okusiko banu... Botikan atxemanen naun... aditzen?» Buruz baieztu zuen Zerunek. «Nahi balin badun, Zerune... Agur.»

Ohean zetzan gorputz arrotzuekin bakar bakarrik egon zen Zerune. Bakar gorria bai, batzuetan sudur tinkatutik dilindan zegoen oxigena-hoditxoaren marra xuriari so, bestetan bekoki eta kalpar beltz plastexez erdi gordetueri. Lur ikar arin batek (Richter 3koa zitekeen) hoditxoa Katryl higitu gabe dil dil lerraerazi zuenean, haren ezpain urdin-duk musu minduna bilakatu zirela ohartu zen Zerune. Orduan neskak mihisea kendu zuen, gorputz gaixo hura, zauri eta hodiez xixtakatua, osoki agerera arte. Baldoki batean, papoan eta sabel-ean pilpiratzen ziren telemonitoringetako disko argitsuak, Katrylek beste barneko odol galtze edo bihotz gelditzerik gabe beti irauten zuela seinale.

Katryli bularra sorbaldetaraino altxatzen zion sagaio arin arinegia, Xuripiko urbidetakoa bezain ahul eta ozena zen... Zerunek bular hori perekatu zuen. Alferrrik. Itsuski, zuzenki, ixilki bezain poliki baitzihoan Katryl bere heriotzarako bidetik. Ikararik gabe. Hasperenik gabe. Auhetik gabe. Agian miñik gabe!

Hipaka ixil batek Zeruneri eztarria korapilatu zion. Berriz xutitu zen. Gogodurarik ezak bere xedea betetzeko nahia elkhi ziolakotz, hodiaren kentzeko luzatu zuen esku herabeak gorputz gazte geldia mihiseaz berriz estali zuen. Neska harrizko aurpegi horri musu bat emaiteko kemenen galdu eta ohoin baten gisan joan zen.

**zutik  
omen  
bizirik!**

Lagunek Katrylen gorputza eraman zuten goiz-ean, markats urdin hetsia bilakatu zen Xuripi, ate ohol ixilak doluz, untzi hutsak kaien hegiz lerroka lo. Xuripiko untzi guziak, Katrylen gorpua eramaiten edo segitzen zutenak, eta Iber urbidera neska goibel bat gidatzen ari zen untzi ubel ttikia salbu.

Katrylen gainera plexihotza ixuri zuten eta izar zehargi gogortu hartan, zetzan, haren begi harrituak, Turioiko eguzkia bezain urdinak, zabalik, mugaruntz eramaiten zuen urkirol-kayakean kulunka. Haren anaia Basiketetik, hots, Deunargitik etorri zen eta haren eskuak telegidatzen zuen urkirol-kayak —hilkutxa, xingola zilarreztatuez apaindua.



Xuripiren erdian, Zerunek Iber urbideko 18gn ateari hurbildu, talapasta hurritu, bekaina iduri zuen (aintzin-aldia— branka ateko ezker aldera, ezkiña bereziraino bultzatu zuen, angura mañetika hormako plaka jo arte. 18gn ateari —botikakoari— so egin eta ataria iragaiteko beldurrak sabela xifritzen ziola loriopeko karramarrora kordoka igan zen kantu bat (Katrylen lagunena ?) urrundik entzun zuela iduritu zitzaion eta berehala, neska ilegorri mehea haren zai zegoen botika bazterrera utzi eta eta 20gn ate ttikitik pasagi uztaitu ilunera nigarrez ihes egin zuen. Eskaileretako erdi itzal urdinak laugarren estaiatik goiti «pentzera» —hots, bizilekuak zilatuak zeuden ezpondaren gainera-ingurubilka eraman zuen. Hango belar xurietan kokoriko, ez zuena ikusi nahi nahitaez ikusi zuen : urrun, espazioportu-aintziraren ondoko urbidean, itsaszaldi batzu igerika bezala, Kobol eta Basik arteko mugaraino Katryl laguntzen zioten untziak. Hai-zeak ez zekarren sumendietako, Deunargiko usain garratza, Xuripiko lohium usaina, eski gaziarena baizik. Urbidetako talapastarekin batera, Zeruni igan zitzaion bere hiriaren hats goxo epel hura. Katrylik sekulan izan ez balitz bezala...

Orduan, Zerunek ezin ziolakotz Katrylekiko oroitzapena ez gorpu mutu bati, ez eta gorpu hori zeraman untziari lotu, neskari agortu zitzaizkion nigarrak. Zertarako etorri zen orroitu eta, bidean hertsatu zuen ezbaia haize-urbidetan urtu zela ohartu eta, luzaz pausatu zen, Berreus bereixten zuen marra urruti gorriari. Kobol eta Basiken arteko mugari so. Gero, azpizolara, Begoña andere botikarioaren bizilekuraino emeki jautsi zen eta atean zegoen kalzitazko itsaszaldia bi aldiz jo. Ate biribila bere hatxean biratu, neska ilegorriaren aurpegi kexua ageri.

«Zerune ? Aintzina !

Egongelako sofaetan zeuden emazteek agurtu zuten. Haietarik bat zutitu.

- Zerune ? Jadanik ?

- Ez naun ehorzketara joan. Zertarako etorri naizen badakizue, al'ez ?

- Adizan ! Begiak oraino gorriak zaizkin. Jar hadi. Hola. Hau benetan nahi dunala eta hire nahiez galdatu dunala segur ote haiz ? Gu Berreuseko emakumeok arbasoen rito xaharrak gaurtaratuz askatasuna lortu genuen. Ezetz erran eta ere gutarra egonen haiz».

-Nik baietz jadanik erran dizuet ! Haur hori bakarrik hezi behar badut ere, ez dut mirakuilurik eginen. Nola konpontzen dira ba, Kep eta Arlen alargunak ? Buruhauste bakotzak bere aterabidea».

Begoñak bere ile gorriak astindu zituen : «Zerune, Arlen emazteak bi haur jadanik zitan. Kepena, haurduna huen. Izarnak onhartu zinan, beste batzuek uko egin ; desberdintasuna ez ahantz ! Seme hori ezin baitlitike zuo biena. Katryli kendu diodan eta xitagailuz salbatu dudan zerula hori osoa dun. Eraitzen badinat, klona bat, kopia bat sortuko zain ! Hogozi urten buruan Katrylen bezalakoa izanen dun ! Ahalge edo beldur pixkat senditzen badun, ezetz erran ! Beste bati erainen diogu eta kitto !

- Zeren ahadgea ? Ahaidekeriarena ? Tira, Lur planeta xaharreko Erdi Arora ez itzuli eta Freuden ipuiak haurrerari utzi ! Ahizpak, Berreuseko emazteek zera erabaki dute : Katrylek bai gogoz, bai

gorputzez bizia merezi duela eta klonatzea balio duela. Bi mende hauetan, erori direnean balio-tsuenak klonatu ditugu. Batto erortzean bestea sortu behar. Hau dugu Berreuseko legea !»

- Ederki... zein izen emanen dion ?

- Ez, gogoan dunana ez erran ! Hura ez baitu Katryl izanen. Gorputzez bai. Sortzez, aldiz, Xuripitarra. Hemengo urbideen erdian, gure harpeko etxetan hezia ; legez Koboldarra, izanez Katryl bezainbat Berreustarra. Baina gure kondairaren gerokoa. Agian zoriontsuagoa !

- Eta hi ?

- Neretzat, klona hori semea izanen dun. Katryl eta Berreusendako, bigarren xantza. Berreusek kloneri esker 6 milioi bat bizilagun din, jendea abiatzen edo erortzen denean ere bai. Eta Galaxien arteko legeek 5 milioi bizilagun baino gehiago duten herriak zaintzen dituzte. Ez Kobolek ez eta Basikek ez gaituzte nihoiz kanpora botatuko. (Zerunek nahigabeki irri egin zuen.) Hemengo gizonek balekitez...»

- Ez erran haurkeriarik: Haiak ez dinatze jakin behar. Bestela erotuko lirateke».

Zerune xutitu zen. «Hitzez aski. Noizkoa dun ?»

Begoñak ateraino lagundu zion : «Nerekin hator, laborategira. Apailatuko haut».

Anartean, Katrylen lagunak Urbideko burura, itsas bazterrera iritsi ziren. Han zegoen Subidea, Berreuseko zibilizazioaren teknika lanetan harek zituela Sumendi Zaharretako botakinak itsasora bidatzen. Nahiz eta Basik eta Kobolen arteko muga ofiziala —Ekuadorea— hortik bost kilometrora izan, leku hartan bururatzen zen Koboldarren erresuma, sugeldoizko ibaia erresumetarik kanpoan utziz.

«Suzkoa da  
gure lurra  
sutan dago  
gure erresuma  
suan da  
gure lurra  
suzko ura...»

zioen Berreuseko kantu xahar batek. Hots, subidea zela lur berreus ofizial

Katrylen anaiak telelema (telegiderra)ko atzol bat hunkitu zuen. Kayaka plit plast uretik airatu, subide gorri nabarrera jautsi, nagiki lerratzen hasi. Azirek argibotagailuz berehala tirokatu zuen.

Zera izan zen : ximixt hortzadarra iheska, kurbilka, gizasilueta zitekeenugar lirain horia zeru berdearen pean makurtu, eta kitto, dena lañoa zen jadanik, itsasora sartzean iguzki urdinaruntz igan zen ke urdin argia.

Orduan, Xuripitik Deunargiraino dil dil, Katryl ala ez Katryl zitekeen itxaropen pindarra Zeruneren sabelean astinduz, lurra ikara labur bat eman zuen, erdialdiondoko bildura, azken gogordura.


Richter 3etan.

1984ko Urtarrilan.

# EUSKARAZ IRAKUR

## gehiiago...

### SUSA



Ramonenea etxea, behea

Virgen del Carmen Z/g

20012 - DONOSTIA

tel 19.34.43.28.33.99

urteko: 700 pza edo 45 F

### PORROT

Kontak Tzan jartzek  
deitu DONOSTIA n  
Felipe Juaristi  
52.51.45  
Koldo Etxabe  
69.01.01

### TTU TTUA

# TTU TTUA

Joanes Urkijo

Iturribide kalea, 68-6A

48006 BILBO

tel 19.34.49.433.82.96

### KORROK



## korrok-I

Karrasi Barañain

etorbidea, 52

31008 IRUNEA

tel 19.34.48.27.01.03

### EKAINA.

AIKE ONA route d'Arbonne

64240 - BIDARTÉ

tel (59) 54.97.13

urteko 100F edo 1600 pza

### KANDELA

Manu Lopez

Coronacion, 9-2. esk

01012 - GAZTEIZ



WC

UDF<sup>rantzia</sup>

uuuuu<sup>u</sup>SA  
R

o<sup>o</sup>o<sup>o</sup>o<sup>o</sup>o<sup>o</sup>!

R  
PS  
R

PC  
FO/CGT/CFDT :

KK

aristo

aaaME<sup>nnn</sup>.....

A<sup>narkia</sup>h!

# GAUA LUZE IZANEN DA... BIHAR BILAKATZEN.

## ESKAINITZA

*Ohituak izan gara  
poesia eta olerkia aipatu orduko  
beste mundu batetan sartzen.  
Hitz pollit, hitz bikain, hitz goxo  
eta orozbat goi-mailako,  
poesia lilluragarriak  
iduri zuen ez zela guretako.*

\*\*\*\*

*Jainkoaren onezia; Andre Dena Maria  
Zeru gain urdin garbia  
Noizbehinka agertzen den hortz-adar baten grazia  
Xorien kantua, haur ttipien irria  
Itsasoko uhin burrukalariak...  
Mendi tontorren zorrotza,  
Isturitzeko, Gorbea eta Santimaminako  
harpeen eder eta hotza.  
Baratzetako loreak,  
Neska gazte paregabeak,  
Maitasuna eta iraultza...*

*Horra poesiaren egoitza!*

\*\*\*\*

*Zorigaitzez, urrezko poesia hori,  
langileriak ez dezake irakur, ez dezake maite...  
bortuetako arrano ospetsuen pare,  
gure buruen gainetik iragarten baita!*

\*\*\*\*

*Beraz zer egin, zeri lot ? Hau da lan bat zinez latza.  
Baina non nabil, zer diot ?  
Zabaldu nahi dizuet bihotza :  
Nik ere;  
Etxean jantegian, herrian  
egunero erabiltzen ditudan hitzak  
elkarri josi ditut, elkarri uztartu  
eta badirudi  
«poesia» ez den «poesia» bat dela sortu:  
LANGILE POESIA.*

*Har-ezazu irakurle, den bezala :  
mamia eta ... azala .  
Har-ezazu eta agian xurga  
bere ...  
gatz-biperrekin !*

1975. 11. 5-ean.

# Daniel LANDART

maiatz. 31

APRENDIZ ...

*Hamalau urte baizik ez nituen  
Donoztiritik Baionara etorri nintzelarik  
gogoa ilunik  
inprenta batetan aprendiz sartzeko,  
ofizio «on» bat ikasteko,  
hots ; langile bilakatzeko.*

\* \* \*

*Ordu arte familiakoekin  
baserrian bizi izana nintzen.  
Hantxet, lau mendiñoren erdian,  
Otso-Zelai aldeko bakean,  
bakean eta... hatsaren gainean,  
gure behi, zaldi, ardi, zerri  
oilo, ahate eta gaineratekoekin...*

\* \* \*

*Gure etxean, denok euskaraz hitz egiten genuen,  
euskaraz bakarrik.  
Eta arratsetan ; behi deitzen ari zelarik,  
aitak biziki maite zuen euskal alorreko  
kantu zahar edo berrien xaramelatzea  
eta guk haien entzutea.*

\* \* \*

*Gure zokotik ez ginen maiz ateratzen'  
funtsean hauzokoekin gurutzatzea aski zitzaigun  
dela belar, ogi-joite ala arto-xuritze  
elkarrekin ederki akomodatzeko ginen !  
Baina nekazaritzatik kanpo, tirrit.  
Ez genekien hiriko bizia zer zen,  
are gutiago lantegi bat zer zitekeen...*

\* \* \*

*Alta ; hazaroko astelehen goiz batez  
(bihotza pil-pil eta erdi-negarrez)  
mundu berri baten ezagutza egin nuen,  
edo bederen,  
ezagutzaren egiten hasi,  
ene buruari galdetzen niola :  
non deabru sartu naiz ni ?*

\* \* \*

*Langileak, gehienak urdinez bezti  
makina haundien aurrean edo ondoan  
ari ziren, ari ziren serioSKI  
batzuek begi bazterraz so egiten zidaten  
besteek kasurik ere ez.  
Jaun batek erakutsi zidan ene laneko lekua,  
eta frantsesez zerbaixka erranik,  
bakarrik utzi ninduen erdi-zozotua.  
Ez nakien batere  
zer gertatzen zitzaidan...*

\* \* \*

*Horra, horra zein ximpleki  
baserritar «nagusi» baten semea,  
aprendiz egonik humilki,  
bilakatu den langilea.*

1975/VII/12an.

**LANTEGIKO**  
**HAMAR MANAMENDUAK**

**Lehena :**

*Nagusiak dituzu maitatuko  
bai eta  
ahal bezain ongi zerbitzatuko*

**Bigarrena :**

*Lanaren hasteko eta uzteko  
orduak  
dituzu beti errespetatuko*

**Hirugarrena :**

*Lanean denborarik ez galtzeko  
ez zara  
inoiz lagunekin solastatuko*

**Laugarrena :**

*Nagusiak arrazoin duelako  
denetan  
ez zara haren kontra mintzatuko*

**Bosgarrena :**

*Telefona ez duzu hunkituko  
ahalaz  
kanpotik inork ez zaitu deituko*

**Seigarrena :**

*Lan presatu baten aintzinateko  
beharrez  
igandean aritzea onartuko...*

**Zazpigarrena :**

*Ongi irabazten duzulako  
ez duzu  
emendazionerik galdatuko !*

**Zortzigarrena :**

*Nagusiak hazten zaituelako  
agian  
ez diozu ezerrez ebatsiko*

**Bederatzigarrena :**

*Nagusiak baitira beharrezko  
sekula  
ez duzu haien lana trabatuko*

**Hamargarrena :**

*Ta gauean langileek eskainiko  
pottotta  
ta ipurdi nagusiarendako !*

1975/VII/14an.

eeeeh **HI!**

**NI?**

**B**aaai, entzun:

**KK**  
**BORROKA**

**EUSKKA**  
**DIN**

**O**  
**S**  
**OOO**

**BORROKA**

**KK**  
a<sub>r</sub> r<sub>isto</sub>

### LANEKO LAGUN BATI

*Ez zuen aspaldi ez  
Elkarrekin lan egiten genuela...  
Zenbat ote ?  
Sei hilabete ?  
Behar bada gehiago...  
Behar bada gutxiago...  
Funtsean zer munta du ?  
Baina halere, elkarrentzat,  
Ba genuen halako  
Adiskidantza bizi bat.*

\* \* \*

*Langile ona zen, arras ona  
Eta langile trebea.  
Baina oroz gainetik  
Gostu nuen harekin solastatzea...  
Denetaz mintza zitekeen  
Denetaz ba zekien zer bait  
Politikaz, ekonomiaz, kulturaz...  
Eta bereziki, bereziki  
Ba zekien eta nola !  
Langileen zuzenak zein diren !*

\* \* \*

*Baina horra !  
Nagusiek ez dituzte maite  
Horrelako langileak.  
Langile buru-argiak...  
Zeren horrelakoak (oi gaixtoak !)  
Horrelakoek baitituzte  
Beste langileen kaskoak berotzen,  
Sua pizten, saltsa muntatzen  
Eta, eta... nagusiaren interesak  
Arriskuan ezartzen !*

\* \* \*

*Beraz, beraz,  
Gauzak sobera sumintzera utzi aitzin,  
Eta dirudunak beti errege egon daitezen...  
Gaixo, gaixo, gaixo nagusi  
Euskaldun-fededun kartsuak,  
Hau dela eta hura dela,  
Dena estakuru-mestakuru  
Eta bixtan da lantegiaren onerako :  
Eta langile laguna  
Kanpora igorri du !*

\* \* \*

*Erranen didazue gero  
Euskaldunen artean  
Klase arrazorik ez dela...  
Hauxe bada gezur ustela !*

1975/I/25ean

## LANTEGIKO KOMUNEAN

Lanean ari naizelarik,  
batzutan bertsuak sortzen zaizkit.  
Baina ezin ditzaket paperean ezar...  
Paperik ez dut eskumenean.  
Eta bestalde, papera banu ere,  
nagusiak ez nau  
bertsu asmatzeko pagatzen ; baizik  
lanaren ongi egiteko, eta ahal bezenbat.

Beraz, nagusia edo haren ordainak  
ez ditudalarik ondo-ondoan  
lantegiako komunera ihes egiten dut,  
eta han egoten naiz, (ez luzaz haatik)  
zenbait lerro idazten ditudala tarrapatan  
nehork deus jakin gabean.

\* \* \*

Komunean nago orain ere.  
Benetan leku hertsia... eta itsusia.  
Usaina ez dut aipatzen.  
Paretetan ikus daitezke,  
langile lagunek egin edo ezarri marrazkiak :  
emazte biluzgorriak  
eta beste mila gauza !

Hitz zenbait, artetan.  
Labur bezain larriak..  
Seksoa aipatzen duten horietarik...  
Seksoaren nahia, gosea, beharra, ederra.  
Seksoa, toki hontan errege...  
errege, edo... edo... edo...  
nor ez da seksoaren esklabo ?

\* \* \*

Komunean olerki idazten aritzea,  
Hauxe bada gertakari paregabea...  
Alta horrelakoa da ene zorzea.  
Hemendik, ez dut deus ikusten :  
ez mendirik, ez itsasorik,  
are gutiago ametsetako mundurik.  
Funtsean, ez nabila  
ametsetako mundu baten ondolik...  
Toki hontan,  
nehon eta sekula baino hobeki  
senditzen dut nor eta zer naizen ni  
LANGILE BAT, besterik ez.  
Baina hori aski zait.

\* \* \*

Eta zenbait aldiz, pentsatzen dut ba daitezkeela-  
ni bezala beste langileak,  
komun batetan  
gordeka, ixilka, tarrapataka,  
olerkiak idazten dituztenak.  
Segi bezate, segi luzaz.  
Baina, ez deiet gutiziatzen gertatu zitzaidana :  
Herenegun ; sortuz geroztik paperean ezarritako  
ene ustez poesiarik ederren-ederrena,  
Komun zulora erori zait  
eta kakarekin batean  
urak, denak eraman ditu.

\* \* \*

Barkatu, beraz, barkatu  
eskaintzen ahalko nizuen  
olerkirik zoragarriena  
komunean baitut galdu...

1975/7/6ean.



# KOÑO

# BAIET<sup>z</sup>

# zut

maiatz. 35

NAGUSIAREN NIGARRAK .....

Gure nagusia , gaixo nagusia  
Goizetik arrats ta urte guzia  
Nigarrez , nigarrez , nigarrez ari da .

Nigarrez aritzeko,  
Nigarrez aritzeko  
arrazoinak , arrazoin haundiak  
ba omen ditu .

Ta nagusiaren nigarrek  
langilearen , langilearen  
bihotz « eria » hunkitzen .

Nagusiaren  
nigarrez aritzera ez uzteko  
Kontsolatu beharko dugu .  
Ta nagusiaren kontsolatzeko  
langileek , langileek  
irabazi berarentzat  
lan gehiago  
egin beharko !...

Gure nagusia , gaixo nagusia  
Goizetik arrats ta urte guztia  
Nigarrez , nigarrez , nigarrez ari da .

Nagusiaren  
nigarrez aritzera ez uzteko  
langileak , langileak  
ez du lanari baizik pentsatuko !

Lan eta lan , lan eta lan , lan eta lan ,  
lan eta lan , lan eta lan , lan eta lan ,  
lana , lana , lana , lana ,

Langileak ez du lanari baizik pentsatuko ...  
eta greba horiek , greba zikin horiek  
bazterrera utziko !

Gure nagusia , gaixo nagusia  
Goizetik arrats ta urte guztia  
Nigarrez , nigarrez , nigarrez ari da .

Nagusiaren  
nigarrez aritzera ez uzteko  
langileak , langileak  
beti eta beti , beti eta beti , beti , beti  
beti eta beti , beti , beti  
haren zerbitzuko  
egon beharko !  
Ahalaz , ahalaz , bakantzarik ere  
ez hartuko !

Lan eta lan , lan eta lan , beti lan  
eta lan , beti lan eta lan , beti ,  
beti , beti , beti lan eta lan ...  
beti , beti , beti ...

Gure nagusia , gaixo nagusia  
Goizetik arrats ta urte guztia  
Nigarrez , nigarrez , nigarrez ari da .

Gure nagusia ,  
pobreño bat da  
nagusietan pobreena .

Hamar etxe ,  
Hiru kotxe ,  
Zazpi sehi ,  
Hogei zaldi .  
Ta Suisako bankoetan , abilki gorderik  
dolarrak , dolarrak  
dolarrak metaka ...  
hori baizik ez da , hori bakarrik  
gure nagusiaren  
nagusi gaixoaren : miseria  
miseria gorria !

Gure nagusia , gaixo nagusia  
Goizetik arrats ta urte guztia  
Nigarrez , nigarrez , nigarrez ari da !

1976- V-23-an .

**nor  
da  
hemen  
nAGUSIA!  
NIII...  
ooo**

## XILEKO LANGILERIARI ...

Ximixta baten pare  
eguzki gorraile bat ikusi ondoan ,  
Xileko langileria ,  
berriz ,  
gau beltzean sartu da .

Langileen kopetak behehitu dira ,  
haien begiak zorroztu  
bihotzak gogortu  
eta...  
eskuan zeukaten xoria airatu .

Alta zenbait denboraz uste ukan dute  
Uste ukan dute bai  
eguzki gorraile hori gorriagotuz joanen zela  
eta zuzen den bezala  
klase gabeko gizarte bat egingen zutela .

Baina ez !  
Haundi- maundi madarikatuak  
ez dute horrelakorik onartu  
eta beren interesak zaindu beharrez  
erabakia segidan hartu  
iraultzaren gidariak  
behar zirela suntsitu !

Beren lan tzarraren obratzeko  
denak zeukaten eskuko :  
dirua eta harmak , harmak eta dirua  
Ipar Amerikaren laguntza  
ez dut aipatzen Eliza ...

Populuak aldiz, gaixo populuak  
bere buruaren zaintzeko  
Fasismoari ihardokitzeko  
ez zuen deus kasik  
bere esku hutsak baizik ....

Eta esku huts horiek moztu dituzte  
gubernuko giderrez jabetzeko  
eta jabetu ondoan , oraindik  
salbaikeria harrigarrienen egiteko :  
Politika-gizonak hil  
sindikalistak hil  
Olerkari eta kantariak hil  
eta bizi gelditu direnen saria :  
desterrua edo presondegia  
eguneroko miseria .

Geroztik,  
Xileko langileria doluminez dago  
eta ba daki  
zeru gainean ez duela izarririk ilusiko  
askatasuna ez baitzaio zerutik jautsiko  
baina bai , lur hontan aski gudukatuz  
zuzentasunak baitu , egun batez , irabaziko !

Xileko langileria  
lurrera eroria  
eta  
Euskadiko langileria  
zutitzen hasia  
Zein diren elkar iduriak ...

...Elkar iduriak !

1975-VII-15.ean.

## BIPER eta GATZ

### APEZ

Euskal Herriko apezetan  
parrasta on bat ezagutzen dut.  
Ba da denetarik...  
Funtsean ; andana pollita ba dugu  
orainokoan segurik !

\* \* \*

Guztiak, beren gisan  
Jainkoa zerbitzatzen dute  
eta oroz gaineratik laudatzen.  
Baina ; batzu halere  
Jainkoaz eta erlijioaz  
ez ote dira ederki baliatzen ?

\* \* \*

Dena dela ; gutartean bizi zen  
apez gazte zintzo bati  
emeki emeki fedea epeldu zaio  
batzuen «garra» ikusita gero...  
Eta, hiru urte dudamudan egonik  
anitz gogoeta samin eginik  
azkenean  
apezgoa utzi du.

\* \* \*

Euskal Herrian nahiko zuen gelditu...  
Lehen-bait-lehen, edozein lanu lotu...  
Baina inork ez dio atea zabaldu.  
Etxekoak, lotsaz, nigarretan  
Kristauek aldiz ele-txarra mihi punttan  
Eta apez ongi-bizi nahiak  
berena gogoan :  
«Vade retro, Satana. - Gora gure sotana !»

\* \* \*

Joan da beraz gure apez-ohia, ixilik.  
Ixilik, bakarrik, biluzirik,  
gibelera so egin gabe ; urratsa luzatuz...  
Euskal Herritik biziki urrun den  
beste Golgotha bati buruz.

\* \* \*

Eta geroztik ; nago  
ez ote den errexago  
Fededun izatea  
Fede-gabe baino ?

1974/V/12an.

## APEZ ?

# 100% AHAPEZ...

maiatz. 38

### EZ ZEN ARRAS BESTEAK BEZALAKOA ...

Goiz batez ez zen lanera etorri ...  
Nahiz, zendako harri ?  
Denei gerta daitekeena da hori.  
Eta beraz gure artean,  
mila estakuru harrapatzen genizkion ...  
Baina, hamarrak irian,  
berria zabaldu zenean,  
denak trantsituak gelditu ginen :  
ortzia gainera erori balitzaigu bezala !

Rafael hila !

Rafael, gure lantegiko lagun bat zen.  
Hogei eta bi urte.  
Mutiko ixila, apur bat herabe ...  
Begitarte beltzaran eder batekin,  
Ileak luze-luze ...  
Maiz ameslari,  
(Aingeru bat iduri)  
Gorputzez ongi egina  
Hots : gazte zinez atsegina.  
Baina ... besteek ez duten zerbaít ba zuen  
edo hobeki errateko :  
«ez zen arras besteak bezalakoa».

Zer zuen bada,  
nola aitor, nola erran ?  
Horrelako «gauzak» gordetzen dira ...  
Edo hanbat gaixto bestela !  
Baina Rafaelak ez zuen gorde  
Ez eta gorde nahi ere ...  
Harentzat zirela beraz :  
laido, mehatxu eta golpe !

Zenbat irri txar, trufa gaixto  
Goizean hasirik, iluntzeraino ...  
Baina Rafaelak ez zuen deus erraten.  
Funtsean zer erran zezakeen ?  
Nahi ukanik ere, ez genuen utziko !  
Eta aldi oro,  
haren begitarte gozo argia  
lano batetan galtzen bezala zen ...  
nigarra zuela lagun.  
Halere artetan,  
erdi-karrasika bere errabian  
oihu egiten zigun :  
«Utz-nezazue bakean; utz bakean !»

... Debaldetan !

Eta azkenean, azkenean  
nekatua  
etsitua  
minaren minez zoratua  
familiarik eta laneko lagunetarik  
bartzertua  
mundu hontan zinez galdua,  
Ikusirik  
bere zorteak ez zeukala aterabiderik ...

soka bat erosi zuen  
eta ...  
Goiz batez ez zen lanera etorri.

«Ez zen arras besteak bezalakoa» ...

Orduan konprenitu genuen  
Zein lazgarri daitekeen  
Homosexual baten korapiloa.

1976/II/14-ean

eta  
Z<sup>ese</sup>R'



## ANDERE HAUNDI

Andere haundi, andere haundi  
Andere haundi bat iduri  
Itzuli-mitzuli ...  
Begi-keinuka, ardura deika  
Andere hori ari zait neri  
Itzuli-mitzuli  
Dena tripustelkeri.

Andere haundi, andere haundi  
Haundi bezain itsusi ...  
Itsusi, itsusi :  
Suge eztena, zaia beltzak  
Heriotzearen hortzak  
Andere hori, andere hori  
Ezin dezaket ikusi  
Baita zinez beldurgarri.

Andere horri, andere horri  
Iheska nabil, iheska  
Noiztenka, noiztenka ...  
Baina ba dakit, ba dakit garbi  
Bihar edo etzi  
Andere horren beso artera  
Beharko dutala erori ...  
Erori, erori.

Andere horrek, andere horrek  
Behin betiko  
Bereganatuko nauenean  
Egun batean  
Ez dut nahiko  
Lorerik  
Nigarrik  
Are gutiago  
Laudoriorik.

Ehortz nezatela, ehortz nezatela  
Langileak, LANGILEAK  
Ehortzen diren bezala :  
Xume-xumeki; xume-xumeki.

Eta zilo barnean  
Geldituko naizenean  
Bakar-bakarrik eta hotz-hotza  
Hotz-hotza  
Zuen bizitzak segi beza,  
SEGI BEZA !

1975/V/26-an

## EMAZTE PAREGABEA

Lehenik jeikitzailea  
Gosari prestatzailea  
Ohearen egilea  
Zikinen garbitzailea

zu, ene andrea  
oi andre maitea  
etxeko andrea...

Janari moldatzailea  
Baxeren xukatzailea  
Jantzien lisatzailea  
Galtzen pedaxatzailea

zu, ene andrea  
oi andre maitea  
etxeko andrea

Lau haurren altxatzailea  
Xuhurki bizitzailea  
Goxoki mintzatzailea  
Zinez, zinez langilea

zu, ene andrea  
oi andre maitea  
etxeko andrea...

Fedearen zaintzailea  
Bertute oroz betea  
Gauerako maitalea  
Emazte paregabea

zu, ene andrea  
oi andre maitea  
etxeko andrea...

Zergatik bada zergatik  
Goiz batez ez zara lehenik iratzartu ?  
Ez dituzu esnea eta kafea berotu ?

Zergatik bada zergatik,  
Ez dituzu haurrak eskolara segitu ?  
Jantziak lisatu, galtzak pedaxatu ?

Zergatik bada zergatik,  
Zatzaizkit hain bortitz mintzatu, haserretu ?

Zergatik bada zergatik,  
Zatzaizkit behin betikotz oldartu ?


zu, ene andrea  
oi andre maitea  
leiala  
ixila  
humila  
apala  
zu, ene etxek'andrea  
emazte paregabea...

1976/XI/14an

**WOOOH,**

**JE T' AIMEEEEEE**

# BIZIAREN AMARAUNA



Lucien Etxezaharreta

Ba dik urte bat nunbeit han Joseba Sarrionaindiak agertu ziela liburu bat, «Eguberri Amarauna». Ez dik berak sinatua baina jakina diat geroztik, leku seguretik, harek zuela egina. «Amarauna» hitz hori ez nian ezagutzen eta arras pollita kausitu diat, «armi armo sare» ere erraiten duk eta badik halako soinu bat, «amauna» erraiten baita ere, eta badik ene ustez halako mahuma, mamu aire bat. Ago, heldu nuk amaraun hortara...

Biziki hunkitu nik liburu horrek. Presoner bat duk hor mintzo, bere kaztigu gelan, bakarrik. Ari duk hitzen bila... oroitzapenekin koropilatuz, hari batzu gelako punta batetik bestera jartzen! Hari bat, bi hari, eta egunak egunari, gauak gauari, sare bat hedatzen dik. Hitz haundi batekin: itxaropenarekin. Barneko ezinak jabalduz, eztituz, laztanduz. Gelaren hutsean, pairamena sendagarri. Eta berriz ere gogoratu zaitak poesiaren eragin bat (ahatzi ziatak erraitea poema liburu bat dela) eta hori duk hitzarekin dukala espazio bat lantzen eta betetzen, hitzari poesiak indar berri bat emaiten baitziok.

Ezagutzen duka Jean Lurçat ? «Munduaren kanta» berri bat egin zian, dena tapizerian, Erdi Aroko tankera hortan, dena lehenagoko munstro iduri eta hola. Animaleko lan bat, hariz harizka ehaintza lan luze bat. Harrigarria duk holako baten lana. Apokalipsia batetarik hasi zuan, miatzen zitian itxuraldatze batzu, biziaren hari guziak hunkitzen zituenak. Bisionalari bat, guti diren horietarik. Eta zer kolore ederrak... Iduri batetaz oroit nauk : «poeta» deritzen duena. Hau duk gizon baten irudia eta badik eskuan arranbel bat eta gezi botatzen ari duk. Suzko geziak. Eta giza itxura guzia geziz inguratua gertatzen duk, iguzki baten pare. Pentsatu nian poeta presuner horri, suzko gezi botatzen ari, bere zoko iluna argitzen, dolorezko izarrak itzaltzen, lan luze batean, berriz hasi, minak ahantzarazi eta haria beste puntatik hasiz... oroimena ezin jasanak gesaldua, beste ezkinatik hasiz. Amaraun urratua arrahartuz. Hari nagusien ardatzei kasu emanez. Poesiaren ehaintza. Amarauna.

Ikusi duka behin ere nola ari den armi armoa ? Nola bizi den ? Aitortzen dauiat ez dela aise hori xeheki ikertzea. Behar dik denbora hartu eta bazakiat ez dela gaur egun halako tirria berezirik hortarako. Eta lehenik erran behar dik armi armo edo berdin lipu deitzen diren horik ez dutela fama ona gure etxeetan ! Desordrearen marka duk etxe batean omen, hainbat gaixto etxeko anderearen omenarentzat eskaler zokoan holakorik balin bada. Ene etxe zoko batzuetan batzu amultsuki begiratzen ditiat, ontsa behatzeko gisan... Bainan erran behar dauiat oroitzen naizela haur denboran ene etxe haundiko zerbitzu horietan ziren batzuetaz. Sabel idor nintuan frangotan eta ontsa oroit nauk zer minak nintuen ezin libratuz... Orduan egoiten nintuan luzaz bakar gela hortan, mina ahantziko nuela eta berdin joanen zela pentsatuz.

Eta borta azpitik jin haizea gatik balantzan ari zen hari bihurrikatu baten puntako argi basoaren xuri distirantak ene begien aitzineko ikusgarriak pizten zitian. Zenbat oren pasatu dituztan hola...Ene gibelean zen leihotik Luberriko orgen karranka bazuan usu, behi edo ardiaren joareak, xakur xanpakoak, oihu bat edo beste eta berdin gau beltzaren euri uharraren orroa. Han ere, urrun, sukaldeko ene amaren harrabotsak, anai arreben kalapitak edo berdin eskalereko aitaren urrats beldurgarria. Batzuetan ere, amentsetarik tanpez atzartzen ninduela, oihu bat, ene ondotik, nun nintzen eta ernatzeko otoi, zer debru ari nintzen. Ene sekretuak enekin nintian, tripako mina eta buru asmaketa laxoko artean ehain hariekin.

Gela hertsia hortan jarria nintzela eta, begien aintzinean amaraunak banintian. Untsa oroit nuk, behatzen nuen sartzeko ate hortaz : eskuin aldetik idekitzen zuan eta bazian krisketa bat, eta ezker alde, pean eta gainean, mundu berezi hortako izakiak... Ttitta beltz batzu bezala dituk urrundik ikusten dituzkan armi armoak, sarearen erdian. Beren artean partikatzen die eremua Bakoitxak bere sarea. Egoiten bainintzen aski luzaz, momentu baten buruan mundu hori pizten zuan. Eta lehenik, beti beren sarea arrahartzen, berritzen, azkartzen, haunditzen ikusten hituen.

Hola hasten zituan. Zer lan ederra ! Tripatik dilingan jartzen dituk batzuetan, beren zango alimaleeri kasu emanez. Jauzi eginez, barreatzen bezala die hari bat eta untsa hunen puntta lotzen die. Nolaz ez diren treukatzen holako saretan, ez diat sekulan konprenitu. Ohartua haiz hain segur zortzi zango dituztela, parekatuak, aintzineko biak eta gibeleskoak azkarrenak iduriz. Bakotxak hiru zati juntatuak ditik. Junta horiek arrunt ttipiak dituk, ixkilima buru bat baino ttipiagoak. Zer zalutasuna beren lanean eta nindiaigon nun mila debru ikasten zuten holako sare baten egitura muntatzen ; jakizak ontsa egiten dutela, hari nagusiak, arraiak, kartuak, erdiko koropiloa, bazter uztaiak, hoinbeste hari perfektuki emanak. Untsa behatzen balin baduk ere, ohartuko haiz sistima hori zume bat bezala dukala : plegatzen duk bainan ez duk aise hautsiko edo barreatuko. Erdi erdian zegok armi armoa, beha. Edo berdin kurri gelatxoko punta batetik bestera. Ene izialdurak batzuetan, soinerat jinen zaukala ! Bainan bakotxa bere lekuan egonen zuan. Aski huen ez mugitzea eta hire ondoan pasatuko zuan armi armoa deus hunkitu gabe.

Mota asko ere badituk horietan, etxe barnekoak eta kanpokoak. Barnekoetan batzu handiago dituk : beltz beltzak, oi ama zer beldurak ohe gainean holako bat ikusi eta... bainan ez diat sekula ausikirik izan. Nagok egia denez ausikitzen duten. Horietan ere badituk amarauna egiteko molde desberdinekin. Funil aire bat die batzuk, sarearen bihotzean eta hor gordetzen dituk, armi armoak, nehorik ikusi gabe. Behar duk luzaz egon haien jalitzen ikusteko. Misterio gehiago die horiek ez baitituk ikusten eta hala ere hor baitituzkalakoan. Badituk ere kanpoko armi armoak. Zer gauza ederrak, distirantak, hori ferde, beltzak. Sareak azkarrago ditie ; alabainan, haize, euri eta besteri ihardukitzeko.

Mundu ixil horri beha ta beha egoiten nintuan, mugitu gabe. Ohartu ote haiz hire gorputza geldi geldia atxikitzen balin baduk, nola dabilan mundua ? Harrigarri duk, dena haro, bizi, mugimendu. Oroaren xilko bilakatzen haiz, zentru geometriko bat. Mugizkik begiak bakarrik : ezker eta eskuin, gainian eta behean bizia abian duk. Ez gauza aintzik hastapenean, bainan kraskako batek erranen dauk etxeko zurak bizi direla, murruetan, taulen arteketan, bizi gorde bat abiatzen duk forradura ikusten ez dituzkanetan. Ehaiz beldurtu behar haatik, hihaurren baitan gauza bera gertatuko baita : foltsua sendituko duk, tripako ibilaldien korrokkak ere... bainan buruaren barnean diren horien harrobots xuri edo tximixtaren pare dabilen gogoetek behar bada gehienik haute markatuko.

Mundu ixil horren burrunbaz ohartua nuk orduan. Mundu basa, gaixtoaz ere. Oraindanik gogoan diat - aspaldi duk to hori - nola uli bati behatzen ari nintzelarik zerbitzu horietan, bat batean amaraun bati lotu zuan. Jadanik ohartua nintuan ere nola sarearen inguruan ba dituzten armi armoek beste hari batzu jarriak, abertitzeko zerbait hurbiltzen den ala ez sarerat. Hori gertatu orduko hor duk hire aberea, tente, ikusten ez dituzkan behakoak eta harmak zorrotz. ulia lotu zuan, beti gertatzen den bezala hegalek ezkina batetarik. Punpian jauzi egiten zioke armi armoak ; bere gorputzaren buru eta sabelak ulitik urrun atxikiz, bainan bere zortzi anken puntan harrigarritzko dantza batean abia araziz. Ezin sinezia duk eta zinez ikusgarria. Ni harriturik nindagola - lehen aldian zuan hori hain untsa ikusten nuela - ene begiek etzitean deus huts egiten. Uliaren oiha etsigarriak harritzen nintian : zalapartaka ari zuan ezin eskapatuz, harrobots zorrotz, bibrazio mingarri batekin. Eta zortziko hori, zortzi zangoek, josten bezala, mekanika bat zinez. Ulia, emeki emeki, oihal xuri batek itzulikatzen zian, ehaintza hilkor bat. Zoin luzea zen, eta uliak etzian harrobotsik

egiten ahal gehiago eta beti ehaintza hori, pilota bat ulia. Azken parteak nintian gohaindu zinez. Armi armoak bere gorputz beltza hurbildu zian ulitik eta azkenean huni lotu zuan. Zer egiten zian ? Iduriz bere pozoina botatzen zioian nik dakita nora, ez nian untsa ikusten. Ala bizirik jaten zian ? Bainan besarkatze hori zikina, ustela ta beldurgarria kausitu nian. Noiz arte iraun zian horrek ? etzakiat. Zonbait denboraren buruan, ulia, paketa bat bezala, zoko batian dilingan ikusi nian. Jateko erresalbu bat ?

Lotsa batek hartu nintian, holako mundu krudelak biziaren gako batzu salatzen baitzitzaizkian. Haur triste bat ere omen nintuan, jostatzen etzena, diotenaz.

Geroztik, amaraunaren bazter inguruetan beste behako batzu eman ditiat: oroit nuk beha egonik luzaz armi armo familia bati. Udazken guziez emeeri beren sabelak loditzen zitzaie. Trunpilotipi bat handitzen dena, aski luzaz, hiru edo lau astez bederen eta egun batez ikusten duk armi armo ama ttitta batzuek inguratuturik, amaraun berezi batean, zeru zohardi baten pare. Egunetik egunera, ttitta horiek handitzen dituk eta harritu nuena, amatik urruntzen dituk emeki emeki, ama beti konstelazio horren zentruan delarik. Ttitta horiek forma bat hartzen die :ohartzen haiz ba dutela hexur bat bezala, eta zango batzu emeki hedatzen dituztela, borobil itxura bitxi bat dutela, bi polo eginez, batean burua eta bestean, zortzi zangoen junta. Aste batzuen buruan, eremu aski haundia hartuko die, hogoi bat ume baitira. Eta egun batez - erraiten deat ikusi dutan bezala - ez duk gehiago armi armorik, bat edo bi salbu. Zer pasatu ote den ? ezteat erranen ; dudan nuk ala joan diren tropaka beste leku batetara toki eskasez, ala gaueko sekretu ixilea sarraski zerbait izan denez, biziaren lege dorpeen entrabaleko bat... Gaueko eremu horiekin jotzen die soseguz beteak iduri duten etxeetako armi armoek. Bestalde, itsuak ote direnez batzuetan susmatu diat. Behazak, gauaz dituk ibiltzen kurri, gaua die lagun. Hortakotz die ba emaiten beldur. Aski haiz sartzea etxe abandonatu batean, hire arpegia, eskuak, gorputza zafrazten duten gauza ez deus horiek, gero jauntzietan harrapatuko dituzkan hari xuhail horiek, gizonek utzi bizitegiaren betetzeko beste molde bat izan dituk. Hutsaren ordainak. Bizi geldi baten su haziak.

Ez duka batzuetan pentsatu nola amodiozko harreman minbera horiek amaraun baten parekoak diren ? Behazak nola norbait ezagutzen dukan. Bi begien kurutzatze horiek lehen hari bat sortzen die. Irauten dik ala ez , ahanzdura ebakile duk. Eleek hari batzu lotzen ditie. Mota ainizetako hariak zerbait lotura die. Lotura horien arintasunez eta libertateez muntatu sarea amodio iturri dela pentsatzea maite diat. Eguneroko ehaintza duk, hari batzu hauskorragoak oroimenaren haizean. Ez ote ditik Lete-k dion desioaren ezpatak horiek oro mozten ? Hago batzuetan hari bat sobera dukalarik hire amarauna ez ote duen horrek funditzen. Behar dik hein bat. Amaraunak preso ezarriak egina dik berea.

Eta hari hautsien minak... Ezin dukalarik junta barreatzen ari zaukan amarauna. Ondar fin bat bezala johan zaukalarik gaueko gogoeta gogorretan.

Hor duk ba biziaren amarauna.

# GAUEKO

# DISTIRAN

bustiak  
gaueko  
hostoen  
hitzen  
argien  
iguzkitzen  
ur  
zuk  
ene ondoan ?

xorta  
zer

ziren  
distiran  
zirimolak  
lerroan  
dangan  
oro  
zinuen

bustiak ziren hostoen zirimolak argien dangan ...

ene  
zuk  
ur  
iguzkitzen ?

zer  
xorta

ondoan  
zinuen  
oro

hitzen lerroan ur xorta oro iguzkitzen ...

argien  
hitzen  
hostoen  
gaueko distiran

dangan  
lerroan  
zirimolak

zuk zer zinuen ene ondoan gaueko distiran ?

ene  
zuk  
ur  
iguzkitzen  
hitzen  
hostoen  
gaueko  
bustiak ziren

zer  
xorta

ondoan  
zinuen  
oro  
?  
lerroan  
zirimolak  
distiran

L. Etxezaharreta

nnnn

**BAIONAN**

Jakin: 8 avenue Foch  
 La rue en pente: 29 rue Poissonnerie  
 Musée basque: 1, Marengo karrikan  
 Zabal: 52, Pannecau karrikan

**BILBON**

Galeria del libro: Ercilla, 35  
 Herriak: Lizenzado Poza, 11  
 Kirikiño: Colon de Larreategi, 11  
 Universitas: Alameda de Mazarredo, 6  
 Verdes: calle Correo

**DONAPALEUN**

Amikuze liburutegia  
 Barthaburu liburutegia

**DONIBANE GARAZIN**

Maison de la Presse

**DONIBANE LOHITZUNEN**

Rouan liburutegia: Gambetta karrikan

**DONOSTIAN**

Bilintx: Fermin Calbeton, 30  
 Kabo: Plaza Gipuzkoa, 13  
 Manterola: Manterola, 8

**GAZTEIZEN**

Herrikoia: Cuchilleria, 76

**HAZPARNEN**

Carrère Pantxoa: rue de l'Ursuya

**HENDAIAN**

Derro liburutegia: 18 rue du Port

**IRUINEAN**

Abarzuza: Nueva, 81 (Pza S. Francisco)  
 Auzolan: San Gregorio, 3  
 Centro Arturo Campion: calle Comedias, 14

**MAULEN**

Belatxa liburutegia: 44, Victor Hugo karrikan

**MIARRITZEN**

Eki: 21 av. de Verdun

**PARISEN**

Euskal etxea: 10 rue Duban 166

*maiatz.*

15, Pontrique karrikan - 64100 Baiona

Tél.: (59) 59.86.33 - Banco de Bilbao - 20007014004

Abonatzeko : urte batentzat (4 zenbaki) : 90 F edo 1 500 Ptas  
 sostengu gisa : 150 F edo 2 800 Ptas.

**HEGOALDETIK ABONATZEKO**

Diru emaitza (giro bancario) bat egin behar da Banco de Bilbao-  
 rentzat (Baionako bulegoarentzat) zenbaki huntara: 20007014004.

itzul iezaguzu

Deitura: .....  
 Izena: .....  
 Hebidea: .....  
 .....  
 Posta zenbakia: .....  
 Hiria: .....  
 Herria: .....

Honako xehetasunak eman ditzazkezu, nahi baduzu:  
 Adina: ..... Lanbidea: .....  
 Telefono zenbakia: .....

Edité par l'association MAIATZ  
 Responsable de publication Maya Bovard  
 Dépôt légal : 4-ième trimestre 1984  
 Imprimerie Impriminute à Bayonne  
 Imprimerie Mugalde à Hendaye

*maiatz. 45*



*makinerian :*

Ursoa, Belen, Jaki Lautre, Lucien Etxe

*marrazkietan :*

Irene Borda

*moldakuntzan :*

Itxaro Borda

*musikan :* doors, mikel laboa, maikel jackson

*aboa:* marlboro, ducados, porruak

*basoan :* kubalibre, bock, sol y sombra, arno arrunta

*jantziak :* Coco Chanel-ek asmatuak

bihotzez eskertzen ditugu

lan dorpe baina aberasgarri honetan

gogoz bederen lagundu  
gaituzten guziak

ah!

hiihiihiiiii

maiatz.

[\_]o+♦+√+)+√' \*√)♦=[ ♦)°√ | ♦\*√]√ ■√ ,  
[√+√□]°= \*√ | ♦ °]♦\*√|| \*√+)+ ♦♦+°|| °=  
| □°\*♦\*♦ -

*manuskritoaren itzulpena :*

LITERATURA GAUEKO EURIA BEZALA DA  
PARASOLIK GABE IBILTZEAN ZAITU GEHIENIK  
BUSTITZEN

G.KAKOLI 1822

That's all folks!





# Maiatz.

*Maiatz.* batasun, Baionako Balichon eko. M.J. Can. Legezko arduradun : M. Bovard.

Inprimatzaile : Mugalde Hendaian, Imprimintze Baionan, 1984. ek. **abendoa** Hiri hilabetekaria : 25 Fedo 400 pta.

Urte osoko harpidetza : 90 Fedo 1 600 pta. Banco de Bilbao : 20 007 014 004

15, Pontrique Karrikan 64 100 Baiona. Telefona (59) 59.86.33. Dépôt Légal 4 ième trimestre 1984. ager arazle